



Laso vs Ezkurdia,
lehia gogorra Altsasun / 15

Sakanako Estrategia Plan berria egiteko prozesua martxan jarri da / 5

Euskara praktikatu nahi duenak Mintzakide talde batean eman dezake izena / 11

Arakilgo etxebizitza premien argazkia izateko, parte hartze prozesua / 12

Nerepe bakarleri arbizuarrak emanaldia eskainiko du bihar, 19:00etan, Arbizuko plazan / 22

Fran Urias etxarriarrak musika proiektu berria aurkeztu du: Zelanda / 23



Nerabeak aktibatzen klub berria

12 eta 13 urteko neska-mutikoei ongi pasatzeko eta sasoiari egoteko alternatiba eskaini nahi zaie / 2-3

BADATOR

**SAKANAKO
GIDA
2022**

**ZURE ESKAERA
2021EKO
URRIAREN 28A
BAINO LEHEN
EGITEN BADUZU**

**2022
ONLINE
DOAN**

SKE Kluba, nerabeen zain

DBHko 1. eta 2. mailako neska-mutilekin SKE Kluba (Sakana Kirol Eskualdea) sortuko du Mank-eko Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuak, lehiarik gabeko kirol jarduerak eginez, ezohiko kirolak probatu eta abenturak bizitzeko. Urriaren 18an hasiko da martxan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuaren helburu nagusietako bat Sakana eskualde aktiboa bilakatzea da. Hau da, sakandarrak aktibo izatea, mugi daitezela eta ariketa fisikoa egunerokotasunean barnera deza-tela, bizitza kalitate hobea izan-go dutelako. Pertsona aktiboz osatutako Sakana bizia nahi dute. Eta horretarako jarduera fisikorako eta kirolerako orientazio zerbitzua sortu du Mank-ek, eskualdeko osasun etxe, gizarte zerbitzu eta udalekin elkarlanean: Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzua. Zerbitzua dohainik da.

Dani Echávarri Manjón da zerbitzuko kirol orientatzailea, eta ohiko kontsulta eta heldu eta 3. adinekoendako jardueraz gain, orain nerabeen SKE Kluba (Sakana Kirol Eskualdea) martxan jartzen ari da neska-mutiko sakandarrak ere aktiboak izan daitezela.

Zer da SKE Kluba?

SKE (Sakana Kirol Eskualdea) Kluba Sakanako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei, hau da, 12 eta 13 urte dituzten neska-mutilei bideratutako taldea da. Klub honetan lehiarik gabeko kirola eta ariketa fisikoa egiteko aukera eman nahi zaie nerabeei, gazte- txoak lehiakortasunaz haragoko helburuak dituen talde baten barruan sentitu daitezela. Kirola eta jarduera fisikoa egiteko beste modu batzuk ezagutzeare-



Dani Echávarri kirol orientatzailea eta Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria.

kin batera, ondo pasatzeko eta sasoiaren egoteko bidea eskaini nahi die SKE klubak nerabeei.

"Adin honetan badaude kirola egiten duten eta egiten ez duten nerabeak. Gure klubera guztiak erakarri nahi ditugu; hau da, gure proiektua guztiak zuzendua dago. Kontua da askotan nerabeek egiten duten kirola kirol lehiakorra dela eta gurean lehiarik gabeko kirolak egingo dira" azpimarratu du Dani Echávarrik. Mota askotako kirolak egingo direla gaineratu du orientatzaileak, maiz aldatuko direnak monotono ez izateko. "Kirol asko

landuko ditugu, baina beti lehiakortasunetik kanpo daudenak: mendi ibiliak, BTT edo mendiko txirrindularitza, korrika, igeriketa, eskalada, kalistenia edo indar ariketak, denetarik jolasak... Ongi pasatuko dugu. Aldi berean, ikasketek sortzen dien estresari aurre egiteko tresna ona izango da kluba, deskonektatzeko aukera paregabea" gaineratu du.

Bi talde

SKE Klubean bi talde sortu nahi dira. Astelehenetan eta asteazkenetan bilduko litzateke bata,

asteartetan eta ostegunetan besteak beste. "Ziurrenik 16:00etatik 17:00etara ariko gara egunero baina ordutegia ez dago itxita, moldatu daiteke. Izena ematen dutenen artean adostuko dugu" dio kirol orientatzaileak. Talde batek Arbizu izango du bilgune eta besteak Irurtzun. "Eguraldi ona egiten badu jarduerak kalean egiten dira baina eguraldi kaxarra eginez gero indoor jarduerak egingo ditugu eta horretarako azpiegiturak behar dira. Horregatik hautatu ditugu Arbizu eta Irurtzun, kiroldegia dutelako eta, aldi berean, ingurune ederra" zehaztu du Echávarrik. Asmoa urriaren 18an hasia da, maiatza arte.

Ikastetxeetako aurkezpena

Azken egunotan zenbait ikastetxeetan izan da Dani nerabeei SKE Kluba zer izanen den azaltzen. Zehazki, DBHko Altsasu Institutuan, Iñigo Aritzta ikastolan, Sagrado Corazon ikastetxean, Andra Mari ikastolan eta Irurtzongo Atakondoa ikastetxean egon zen. Izan ere, zerbitzuak Sakana osoa hartzen du. "Nerabeei hartu emana nahiko ona izan da, feed-back positiboa. Gustura ikusi ditut. Batzuk klubean izena eman dute eta egunotan askoz gehiago animatuko direla uste dut" azaldu du kirol orientatzaileak, itxaropentsu. "Orain da izena emateko unea. Kluba martxan hasia, hori da garrantzitsua, eta gero nerabeen interesen arabera eskaintza moldatuko dugu, gurea zerbitzua malguta delako" nabarmendu du.

Izena ematea, urriaren 18ra arte

SKE Klubean izena emateko Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzura jo behar dute nerabeek. "Instagramen kontu bat ireki dugu (sakanamank_kirolak), eta gaztetxoak hortik jar daitezke gurekin harremanetan. Bestalde, ohiko bideak daude, 608 697 550 telefonora deitu edo whatsapp bidali, edo aktibatu@sakanamank.eus postara mezua idatzi" azaldu du Echávarrik. Urriaren 18an itxiko da epea.

Hilabete batzuk daramazkizu Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuko orientatzaile gisa. Zerbitzu anitza da zurea: kontsultak, Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuak gidatu, ariketa espezifikoak saioak egin, Etxean Bizi zerbitzua...

Momentuz guztia nahiko ongi doa. Jendea gustura dago nirekin eta ni ere beraiekin. Ezin naiz kexatu eta horrela jarraitzea espero dut.

Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuek harrera ona izan omen dute.

Bai, orain arte Ttipi-Ttapa paseotan elkartzen da jende gehien. Urdiainen, Bakaikun, Etxarri Aranatzan, Lakuntzan, Arruazun, Uhartea Arakilen eta Irurtzunen egiten ditugu. Herri batzuetan jende gehiago biltzen da, beste batzuetan gutxiago baina orokorrean oso ongi doaz paseoak.

Paseatzera ohituta dagoen jendea eta agian aspaldi ariketa fisikorik egin ez duen jendea hurbilduko zaizu. Nola orekatzen duzu?

Konplexua da. Beti dago maila fisiko hobea duen jendea edo maila kaxkarragoa duena, baina taldeak ahalik eta homogeneoak izaten saiatzen gara. Guztien arteko amankomuneko puntu bat bilatzen dugu. Bakoitzak bere gorputza ezagutzen du eta ariketa fisikoko saioak egiten ditugunean badaki zenbat egin behar duen eta zein izan behar den bere intentsitate. Baina paseatzera-koan amankomuneko gune bat bilatzen dugu.

Hortaz, aspaldi ariketa egin ez dutenak ariketa fisikoko taldeetan izena ematera animatuko ditugu?

Jakina. Beti dago bide bat, beti egin daiteke zerbait, eta gurera etortzera animatzen ditugu. Paseotan beti joaten gara azkene-koaren martxan. Kirola egitea eta kirola sustatzea da helburua. Herri bakoitzean Ttipi-ttapa saio bat dugu baina helburua ez da egun bakar horrekin pertsona horien osasuna hobetzea; asmoa da pertsona horiek, bere kabuz, egun gehiagotan paseatzera joatea. Finean, autonomo bihurtzea. **Zerbitzuko kirol orientatzaile zarenetik, Sakanako txoko berri pilo bat ezagutuko dituzu.**



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



"Beti dago ariketa fisikoa egiteko bide bat"

DANI ECHÁVARRI SAKANA ESQUALDE AKTIBOA ZERBITZUKO KIROL ORIENTATZAILEA
Ariketa fisikoa egitearen onurez jabetu, eta zerbitzuak eskainitako ariketa saioetan eta Ttipi-Ttapa paseoetan aritzera eta kontsultak egitera gonbidatu ditu sakandarrak



tzeko gauza bat da. Agian tabuak egon daitezke.

Zer diote paseoan parte hartzen dutenek?

Ongi daudela, eta hobetu dutela. Hobe ikusten dutela haien burua eta eguneroko gauzak hobeto egiten dituztela.

Gero bizkotxoak ekartzen hasten badira, akabo gu!

(Kar, kar...) Hori ere garrantzitsua da, hona gustura etortzea. Lehenengo ariketa egiten bada, gero ongi dator bizkotxo.

Paseoz gain, jarduera fisiko gidatua eskaintzen duzu zerbitzuan.

Entrenamendu pertsonalak dira, baina talde txikiek. Hau da, ezagutzen dugun soinetaren antzekoa, baina pertsonalizatua. Eta indarra lantzen duena. Ildo honetan, Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariarekin batera mezu bat zabaldu nahiko genuke: zein garrantzitsua den indarra lantzea. Hori diote ikerketa guztiek. Gure gaitasunak ez galtzeko indarra landu behar da. Oso garrantzitsua da sentadilla batzuk egitea, abdominal batzuk, flexioak... Jakina, pertsona bakoitzaren mailara egokituta. Ibiltzea ona dela oso barneratuta dago baina indarra landu behar dela ez dago hain

barneratuta eta guk hemendik aurrera hori landu nahi dugu.

Jarduera fisiko saioetarako adin mugarik ba al dago?

Ez, adin guztiendako zabalik dago. Azken finean guztiok dugu ariketa fisikoa egitearen beharra. Hirugarren adineko pertsonena da perfila, indarra lantzea behar dutenena.

Horretaz gain, adin guztietako sakandarren kontsultak jasotzen dituzu, kirol fisikoa egiteko interesa nahi dutenenak.

Bai. Edozein pertsonak dei dezake, berdin du adina. Urdiainen, Bakaikun, Etxarri Aranatz, Arbizon, Lakuntzan eta Uharte Arakilen kontsulta orduak ditut. Telefonoz deituta ordua zehaztuko genuke. Ildo honetan, kontsultetara joateko hainbat bide daude. Batetik, autoderibazioak hau da, interesatuak nirekin kontaktatzen duenean. Berarendako ariketa fisiko egokiena zein den aztertzen dugu, non egin dezakeen. Izan ere, udalek makina bat jarduera eskaintzen dituzte, eta norberari hobeto dator kion aztertuko dugu. Bestetik, Osasun Zentroetatik egiten diren deribazioak daude. Hau da, medikuak edo erizainak paziente bat gurera deribatu dezake. Horrek pisu handia du, pertsona bati medikuak esaten badio ariketa fisikoa egin beharra duela, garrantzia gehiago eman go diolako. Hirugarrenik, gizarte zerbitzuetatik datozen deribazioak daude.

Zer nolako kasuak dira?

Adibidez, etxetik atera ezin diren gaixoendako, menpekotasun larria dutenendako, programa berezi bat dugu Etxean Bizi ize-

"IBILTZEA ONA DELA OSO BARNERATUTA DAGO, BAINA INDARRA LANDU BEHAR DELA EZ, ETA EZINBESTEKOA DA"

Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuko eskaintza

- **Ttipi-ttapa paseo osasuntsuak:** Urdiain (astelehenetan, 10:00etan), Bakaiku (asteartetan, 9:00etan), Irurtzun (ostegunetan, 9:00etan), Lakuntza (ostegunetan, 11:00etan), Etxarri Aranatz (ostegunetan, 16:00etan) eta Uharte Arakil (ostiraletan, 9:00etan).
- **Jarduera fisiko gidatua:** Lakuntza (asteazkenetan, 9:00etan, udaletxean), Arruazu (asteazkenetan, 10:00etan, plazan), Etxarri Aranatz (asteazkenetan, 11:00etan, Xaloken), Arbizu (ostegunetan, 13:00etan, kiroldegian) eta Irurtzun (ostiraletan, 13:00etan, osasun etxean).
- **Etxean Bizi:** Asteartetan, 11:00etan, etxe partikularretan.
- **Hausturen prebentzio ikastaroa:** Asteazkenetan, 16:00etan, Etxarri Aranatzko osasun etxean.
- **Kontsultak:** Urdiain (astelehenetan, 11:00etan), Bakaiku (asteartetan, 10:00etan), Etxarri Aranatz (asteazkenetan, 12:00etan), Lakuntza (ostegunetan, 10:00etan), Arbizu (ostegunetan, 12:00etan, Arbizon), Uharte Arakil (ostiraletan, 10:00etan) eta Irurtzun (ostiraletan, 11:30ean).

**Oharra: ordutegiak malguak dira eta aldatu eta moldatu daitezke.*

na duena. Ni euren etxeetara noa eta gaixoarekin ariketak egiten ditut. Aldi berean, zein ariketa egin daitezkeen erakusten diet gaixoari berari eta zaintzaileari, berak ere fisikoki zaindu beharra duelako. Etxean Bizi proiektuan parte hartzen dutenek asko hobetu dutela ziurtatu dezaket. Esaterako, paziente batek hasieran ezin zuen aulkitik jaiki ere egin eta bizpahiru astetan sentadillak egiten jarri nuen. Hobe-kuntza nabaria izan zuen eta bere bizitza aldatu da. Oso aberasgarria da.

Hausturak eta erorketak ekiditeko ikastaroa prestatu duzue.

Bai, Etxarri Aranatzko osasun etxean eskaintzen dugu eta hemen hirugarren adinekoak etortzen dira, 80 urte inguruko pertsonak.

Ariketa fisikoa egiten dugu, erorketen eta hausturen prebentzioa lantzeko.

Azkena, nerabeendako SKE Kluba. Bai, nerabeak ere aktibo egotea nahi dugu.

Izan ere, hori da helburua, sakandarrak guztiak aktibo egotea.

Bai, eta zerbitzua Sakana guztira iristeko garrantzitsua iruditzen zaigu espezialista ezberdinen arteko elkarlana. Osasun Etxeak, Gizarte Zerbitzuak eta Udalak aipatu ditugu, baina Hezkuntzarekin ere lanean gaude, baita Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, Berdintasun Zerbitzuarekin eta Euskara Zerbitzuarekin. Mahai bat osatzen dugu guztiok, hilean behin elkartzen gara eta bertatik ateratzen da emaitza hau guztia.



Sakandarrak, hausturak eta erorketak ekiditeko ikastaroan. SAKANA ESQUALDE AKTIBOA

Altsasura zabaltzea, erronka

Sakana Eskualde Aktiboa zerbitzua Aranatz eskualdean hasi zen garatzen, hortik Irurtzun eskualde aldera zabaldu zen eta Altsasu eskualde aldera hedatu nahi da. "Zerbitzu hau osasun etxeekin, gizarte zerbitzuekin eta bestelakoekin lantzen dugu. Ttipi-ttapa paseoetara, ariketa fisiko espezifikoko saioetara eta bestelakoetara jende asko osasun etxeetatik eratorrita etortzen da. Eta horretarako elkarlanean aritu behar dugu. Hasieran Etxarri Aranatzko Osasun Etxearekin landu genuen programa, gero Irurtzun Osasun Etxearekin, eta Altsasuko Osasun Etxearekin lantzea da falta zaiguna. Ez da erraza, ez daudelako egoera onean. Baina pentsatzekoa da 2022 hasieran zerbitzua Altsasu gunera zabaltzeko lanetan hasiko garela. Hori da erronka" azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.



ASTEKOA

MAIALEN GALARZA IZAGIRRE

Atarrietatik tabernetara...

Habitatzea, zer da habitatzea? Fenomeno kulturala.

Habitata: gure lekua, gure txokoa, babesturik sentitzen garena.

Zein da nire txokoa? Non sentitzen naiz ni salbu? Nire lekua galdu da. Nire lekuan ez dago inor, ez da inor esertzen, ez du inork zaintzen, ez du inork ikusten... desagertu da. Ez dut babeslekurik, ez dut txokorik eraikitzen, nirea (txokoa) galdu egin dut eta geratzen zaidan aukera bakarra berriro ere aurkitzea da, edo eraikitzea bestela.

Espazio bat ez da geldirik mantentzen den bizilekua, bere horretan, besterik gabe, egoten dena. Pertsonak espazioen bitartez bizi dira, espazioek eraiki egiten gaituzte. Eta herriko txoko maitatuenak galtzen ari gara. Ataria. Jende jarria batzen den leku sakratua. Etxetik aulki bat hartu eta atarian eseri, besterik gabe, ez da ezer gehiago behar: aulkia eta hitzak partekatzeke kideak. Baina zer gertatu da? Txokoak husten ari dira... Atariak hor daude bai, ez dira desagertu, aldiz, espazio soziala ez dago.

Ohitura galtzen ari da, egun txokoetan jarri beharrean

ZEIN DA NIRE TXOKOA? NON SENTITZEN NAIZ NI SALBU? NIRE LEKUA GALDU DA

tabernara joaten gara lagunekin, poteak hartzera eta hortik, beste taberna batera pote gehiagoren bila. Dirudienez, ez dugu txokoak berreskuratzeko gogorik ezta bertan eseri eta zaintzeko grinarik ere.

Txokoak sozializatzeko

alternatiba dira. Emakume zein gizonak lan egunaren ostean txokotara gerturatzen ziren bizilagunekin momentutxoa partekatuzera, inolako planik edo buruhausterik gabe.

Gure aitona-amonak badoaz eta haiekin batera sozializatzeko modu zaharrak.

Hurren arte txoko maiteak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK

Aldea dago

Ez da berdina jolastea eta jokatzea. Lehenengoa ongi pasatzeko da, denbora pasa bat eta tartean lehiaketarik ez duena. Jokatzea, berriz, joko arau batzuk onartzea, irabaztea edo galtzea eta lehiaketaren batean parte hartzea da. Ez da gauza bera jolastea eta jokatzea. Kirol pista batean opatu dugu argazkiko pintaketa, lehiaketa baino ludikotasuna aldarrikatzen duena.



Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus
GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK


Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Estrategia plana garatuko duten erakundeetako ordezkariak Utzaganen herenegun. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Sakanan lan eta bizitzeko, estrategia plana

Ibarreko aurreneko estrategia planaren epea bukatu ondoren, bigarrena egiteko lanketa hasi da. Plana egiteko lanketa irailean hasi da eta garagarrean bukatuko da. Lana hiru fasetan egiten da. Parte hartzera gonbidatu dute

SAKANA

Finantza arloak 2008an eragin-dako krisialdiak ibarreko hainbat enpresa ixtea eta makina bat lanpostu suntsitzea ekarri zuen. Ekaitz betean Sakanako Estra-

tegia Planerako oinarriak landu eta adostu ziren. Haren indarraldia 2014 eta 2020 urteen artekoa izan da. Hurrengo sei urtetarako bide orria zehazteko garaia iritsi da, 2021-2027 Sakanako Estrategia

Plana egiteko garaia. Orain dela hamarkada bateko leloak laburbiltzen du helburua: *Sakanan bizi eta lan.*

Plana berritzearen sustatzailea Sakanako Garapen Agentzia da,

baina talde eragilea Sakanako Mankomunitateak, Sakanako Enpresarien Elkarteak eta Ceder-na-Garalurrek osatzen dute. Helburua lortzeko plan berriak bi ardatz izanen ditu: batetik, lan mundua eta ekonomia jarduera eta, bestetik, gizarte ikuspegia. Lehendabiziko planarekin gertatu zen bezala, bigarren Sakanako Estrategia Planak "dokumentu adostua eta parte-hartzailea izan nahi du, inplikaturako eragile guztientzat etorkizuneko gida gisa balioko duena. Prozesu honek adostutako helburuak lortzeko egin beharreko proiektuak eta jarduerak zehazteko aukera emango digu", azaldu du Sakanako Garapen Agentziako gerente Iker Mante-rola Matxainek.

Egutegia

Plana berritzeko aurreneko pausoak irailean ematen hasi ziren erakundeak. Utzaganek, Sakanako Garapenerako Zentroak, plan berria garatuko duten erakundeetako kideen bilera hartu zuen asteazkenean. Bileran izan ziren aipatu lau erakundeetako ordezkariak aparte Bidelagun turismo elkarteko, Belardi ekoizle elkarteko, Guaixe fundazio-ko eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteko kideak ere.

Plana egiteko garagarriera arteko epea aurreikusi dute. Ordura arteko bederatzita hilabeteetan hiru fase pasako dituzte.

Lehenik, aurreko estrategia planaren ebaluazioa egingen da. Ondoren, ibarraren egungo diagnostikoa eta etorkizunerako proiektzioak egingen dituzte. Horretarako, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu eta aztertu dute. Azken pausoa plangintza estrategikoa ontzea izanen da. Hau da, lortu beharreko agertokiaren diseinua eta hori lortzeko behar diren estrategiak zehaztea. Manterolak esan duenez, "abenduan ebaluazioa eta diagnostikoa faseak despedituko ditugu".

Sakanako lehen estrategia plana egiteko ezinbestekoa izan zen ibarreko eragileen arteko eza-gutza eta elkarlana. Horri segida eman nahi dio talde eragileak. "Parte hartzea funtsezko elementua da Plan Estrategikoaren diseinuan", baieztatu du Mante-rolak. Eta sakandarren parte hartzea sustatzeko sei lantalde sortuko dituzte: industria, energia, elikadura, turismoa, merkataritza eta tokiko administrazioa. Bestalde, sakandarren ekarpenak jasotzeko bideak ere jarriko dituztela jakinarazi du. Horregatik, "guztien onerako delako", sakandarrei plana egiten laguntzera gonbidatu ditu.

"DOKUMENTU ADOSTU ETA PARTE HARTZAILEA IZAN NAHI DU, GIDA GISA BALIOKO DIGUNA"

Irurtzunen energia lanketa Udalbiltzaren mintegian

Energia komunitateei buruzkoa mintegia azaroaren 13an izanen da, Hernaniko Orona fundazioaren egoitzan

IRURTZUN

Euskal Herriko udalerrietan energia burujabetza proiektuak sustatzeko helburuarekin, Udalbiltzak *Udal Proiektu energetiko komunitario eta burujabeak* mintegia antolatu du. Hautetsiei, udal teknikariei eta norbanakoei zuzenduta dago, energia proiektuak abiatzeko beharrezkoak diren gako juridikoak eta burokratikoak landuko dira.

Mintegia dagoeneko abian diren zenbait proiekturen erakusleio izanen da, esaterako Hernaniko (Gipuzkoa) eta Urarteko

(Araba) energia komunitateak, Irurtzuno (Nafarroa) energia lanketa eta Hergaraiko (Nafarroa Beherea) Sugarai biomasa kooperatiba. Irurtzuno alkatea izanen da hizlaria. Hitzorduko hitzaldi nagusiak Greziako esperientzia aztertuko du, Electra Energy Renewables kooperatibaren eskutik. Izan ere, herrialde heleniarra aitzindaria izan da European, energia komunitateak arautzen lehenak izan baitziren 2018an, besteak beste, autokontsumoa sustatzeko eta energia pobrezia aurre egiteko.

Arrosa sareko
podcast-ak

Ostiralean 18:00etan eta 22:00etan
Larunbata eta igandetan
11:00etan eta 22:00etan

107.3 FM
beleixe

Aurrez aurreko zerbitzu egokiak eskatzen

'Pertsonetikiko errespetua justizia egoteko'. Horixe aldarrikatu du Sakanako Pentsiodunen eta Jubilatuen Mugimenduak. Pentsio eta soldata duinak bermatzearekin batera, zerbitzuetan aurrez aurreko asistentzia egokia bermatzea exijitu dute

SAKANA

Sakanako Pentsiodunen eta Jubilatuen Mugimenduak deituta, astelehenean Iberdrolak Altsasun duen bulegoaren parean kontzentratu ziren pentsio duinen aldeko mugimenduko kideak. Argindar konpainiek haren presioa igotzeko "sartutako lasterketa" salatzeke. Horrela, "gasaren eta argindarraren neurri-gabeko prezioak" salatu nahi zituzten.

Iberdrolak eta Endesak joan den urtean 3.000 milioiko etekinak izan zituztela gaztigatu zuten. Aberastasun hori banatu behar dela gaztigatu zuten mugimenduko kideek. Horrekin batera argindar merkaturia oligopolioa dela eta energia enpresa gutxiren esku egotearena bukatu beharra dagoela nabarmendu zuten, "haiek prezioak kontrolatzen baitituzte. Eta gobernuak eta Europar Batasuna ez daude horretarako prest prezioak mantendu edo jaisteko.

Heldu den astelehenean, 12:00etan, Altsasuko udaletxe parean kontzentratzera deitu du mugimenduak. Handik osasun etxera eramanez dute protesta. "Pandemiarengatik telefono bidezko arreta eskaintzen du gobernuak. Hori ez da normala. Gure beldurra da arreta modu hori betirako gelditzea" Mugimendutik argi utzi dute ez dela langileen kontrako mobilizazioa izanen. "Osasun etxeko langileen lan baldintzak hobetu behar dira". Murrizketak eten eta plantillak handitzea exijitu zuten. Bestetik osasun profesionalen bajak behar direla gaztigatu dute mugimendutik.

Hileko azken bi astelehenetan banketxeen sektoreari erreparratuko die mugimenduak eta haien eskaerak beraien bulegoetara eramanez dituzte. Izan ere, "plantillak murrizten ari dira, aurrez aurreko arreta egokirik ez dago". Orduetegiak mugatuak



Argindarraren garestitzearekin hasi dute astelehenetako gaikako mobilizazioa.

"ADINEKOAK EZ DIRA ONLINE ARITZEKO MOLDATZEN, EDO OSO GAIZKI, EZ DAUDE PRESTATUTA"

direla eta kutzazainez hainbat operazio egin beharrez kezu dira, "adineko pertsonak ez dira online moldatzen, ez daude prest edo oso gaizki moldatzen dira". Gaztigatu dutenez, hilabete honen 18an Sabadell bankuak Altsasun duen bulegoa itxi eta bakar-bakarrik kutzazaina utziko dute erabilgarri. Hilaren 18an, 12:00etan, Zumalakarregi plazatik San Joan kaleko bankuetara joan dira haietan beraien aldarrikapenen berri emateko. Eta hilaren 25ean Bakea eta Erkuden kaleetan dauden bulegoen txanda izanen da, orduan udal-txe paretik abiatuta.

Manifestazioa

Adinekoen Nazioarteko Eguna zela eta, mugimenduak deitutako manifestazioan 150 bat pertsona elkartu zituen. 1.080 euroko eta 1.200 euroko gutxie-

neko pentsio eta soldatak aldarrikatu zituzten. Haien eskaerak "justiziazkoak" direla nabarmendu zuten, gaineratuz: "pertsonenganako errespeturik ez badago, ezin daiteke justiziarik egon".

Aurreko legegintzaldian hartutako konpromisoa betetzea exijitu zioten Nafarroako Gobernuari: gutxien kobratzen dutenen pentsioa handitzea. Uxue Barkosen gobernuak gutxien kobratzen dutenen pentsioak Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatu zuela gogoratu zuen 2016an, "baina gobernu hori gelditu zen". Gaztigatu zuten, gaur egun 60.000 nafarrek, gehienak emakumezkoak, 900 euro baino gutxiagoko pentsioak kobratzen ari dira.

Manifestarietako mendekotasun egoeran dauden pertsonen beharrezko zerbitzuak garaiz jaso ditzatela exijitu zuten. COVID-19 gaitzak hildakoen omenez, minutu bateko isilunea gorde zuten. Eta, azkenik, sakandarrak guztiekin pentsio duinen aldeko aldarrikapenarekin bat egitera gonbidatu zituzten, "gure bizitzaren azken txanpan bizimodu ona izan dezagun".



Iruñeko mobilizazioaren deitzaileak foru gobernuaren egoitza parean. UTZITAKOA

Elektrikei "aski" esateko argiak itzaltzeko deialdia

Katalunia, Galizia eta Euskal Herrian gaur, 22:00etatik 22:30era, itzalaldia eta eltze jotzeak egitera deitu dute

SAKANA

ERC, Junts, CUP, MES per Mallorca, Mes Menorca, BNG eta EH Bildu alderdi eta koalizioek herritarrek gaur gauean argia ordu erdiz itzaltzera eta eltzeak jotzera gonbidatu dituzte. *Deskonektatu elektriketatik!* da deialdiaren leloa. Horren bidez "enpresa elektriko handien xantari ezetz" esatea nahi dute. Argindarraren prezioa etengabe garestitzen ari dela eta aste gutxitan prezioa boskoiztu dela nabarmendu dute protestako deitzaileek. Gaineratu dutenez, "prezioak gora eta gora egiten du, eta badirudi inor ez dela gai kontrolatzeko. Inork ez du iruzur horrekin amaitu nahi, Espainiako Estatuko alderdi nagusiak iruzur horren parte direlako". Eta gogorarazi dute alderdi horietako buruzagiak izandako "guztiak enpresa elektriko horien guztien administrazio-kontseiluetan daudela".

Estatuko argindar enpresa handiek "oligopolioa" osatzen dutela nabarmendu dute, eta hark "inposatzen digun argindarraren ordain agiria pairatzen dugu hilero, urtetan. Ezerk eta inork ez du ihes egiten elektrikoaren iruzurretik". Aldi berean, salatu dute "katalanek, galiziarrek eta euskal herritarrek argindarraren prezio justua ezartzeko aukerarik ez dugula". Horregatik, alderdi eta koalizio deitzaileek "oligopolio elektrikoak geratzera" deitu dute, eta gaur gauean "argindar enpresa handietatik deskonektatzera gonbidatzen

zaituztegu". Deialdiarekin bat egin dute, esaterako, Lakuntza, Arbizu eta Urdaingo udalek eta herritarrek bat egitera gonbidatu dituzte.

Mobilizazioa

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sinatzaileek eta Nafarroako Parlamentu Sozialak gaur, 18:00etan, Iruñeko Sarasate pasealekuan mobilizatzen deitu dute. Deialdiaren leloa *Argi dugu: zuen onurak, gure iluntasuna da*. Deitzaileek adierazi dutenez, "energia eskubide bat da eta, osasuna, etxebizitza, hezkuntza... bezalako eskubideak ezin dira korporazio handien esku utzi, pribatizazioei esker eta pertsonen eta ingurumenaren kontu urteetan aunitz irabazi duten korporazioen esku".

Argindar enpresen oligopolioa salatu dute. Ziurtatu dutenez, "bahir dugu ereduak kontrol publikoa eta parametro sozial eta demokratikoen arabera erregularizazioak behar ditu. Beharrezkoa da sozialki beharrezkoak ez diren kontsumoen murrizketan oinarritutako energia sistema ezartzea, eta guztien behar sozialak bermatzera bideratzea". Egungo ereduak "ingurumen hondamendia dakar, gizar-tearen gehiengoaren bizitza prekarizatzea eta pobrezia". Horregatik, "botere publikoen konplizitatea edo permisibitatea geldiarazi behar da. Tantsizio ekosoziala nahi dugu, pertsonen mesede egin eta ingurumena babesteko duena".



**“Pribilegiatu bat naiz.
Nire belaunaldikook beti
izan dugu BERRIA”**

Eneritz Furyak

Musikaria

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

IA-koa bata, GKS-koa bestea. Bi erakundeek Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista antolatuta dute astebururako.

Zergatik eginen da Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista?

Jon: Helburua da, batez ere, Euskal Herriko hainbat eskualdeetako mugimendu sozialistako militanteak batzea, eta esperientzia politiko desberdinak elkarbanatzea.

Zergatik elkartu zarete antolaketan GKS eta IA?

Nahia: Biek esparru desberdinak lantzen dituzte. IA-k institutuetan eta halakoetan lan egiten du. Eta GKS gazteen arloan orokorrean aritzen da, izan daiteke lana edo... Mugimendu sozialistaren baitan Itaia dago, feminismoan zentratzen dena; Sakanan orain dela gutxi sortu dena. Gendar aldizkaria dago ere. Hark Topagunearen eguneroko emaldia eginen du.

J.: Horretaz aparte, informazioa eskuragarri egonen da bai IA-ren bai GKS-ren Twitter eta Instagram kontuetan. Agendari buruzko informazio eguneratua izanen da sare sozialetan.

Ideiak elkarbanatu, elkar ezagutu eta esperientziak trukatzeko espazio bat sortu nahi duzue?

J.: Bai. Hainbat hitzaldi eta mahai inguru egonen dira. Gure helburua da gaurkotasuna duten gaien inguruan denok, lehenik eta behin, ideiak guztiak errespetatzea, eta guztiok ideia batzuk finkatzea edo horien gainean ondorioak ateratzea, ondoren gure politika jarduna bideratzeko.

Azkenerrako, burua janztea.

N.: Bai. Garrantzitsua iruditzen zaigu ere hainbat eskualdeetako jendearekin komunitate bat sortzea. Harremanak egin jende guztiarekin. Azken finean, denok elkar ezagutzeko eta ideiak partekatuzko.

Bost egun horietan sortuko duzue etorkizunerako proiektzioa izatea nahiko zenukete, ezta?

J.: Topagunea da Euskal Herrian dauden egoeren inguruan ideiak eta partekatuzko espazio bat. Eta etorkizunean zer gertatuko den oraindik ez daukagu argi. Baina baliabide bat da indarra hartzeko eta gure artean ezagutzeko, etorkizunean proiektu politiko egonkor bat sortu ahal izateko.

Pandemia betean nola moldatu zarete antolatuzko?

N.: Nahikoa zaila izan da. Neurri batzuk errespetatu beharko dira. Esaterako, COVID-19a dela eta

"Baliabide bat da indarra hartzeko eta gure artean ezagutzeko"

NAHIA MIGUEL GOIKOETXEA ETA JON MENDIA IRIGOIEN ANTOLATZAILEAK

Gaurtik asteartera Altsasuk Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista hartuko du, Iksale Abertzaleak (IA) eta Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) taldeek antolatutakoa



Nahia Miguel Goikoetxea, IAko kidea eta Jon Mendia Irigoien, GKSko kidea.

joan den urtean ez zen topaketarik egon. Koronabirusaren aitakia pean egon diren askatasun murrizketei aparteko garrantzia emanen diegu aurten. Gustatuko litzaiguke horretan atentzioa jartzea: askatasun politikoen urraketan eta halakoetan.

Zer moduzkoak izan dira herriz herri egin dituzuen aurkezpenak?

J.: Altsasun izanen dela ikusita, Sakanako jendea animatzeko, herriz herriko aurkezpenak egin ditugu. Aurkezpen batzuk besteak baino hobe atera dira. Aurkezpenez aparte, jendearekin lanketa egin beharko da; banan banan hitz egin. Zeren aurkezpenetara ez badira joaten, zaila da gero Topagunera animatzea. **Zer espero duzue? Jende mugimendurik badago?**

N.: Sarrerren salmentagatik eta jendearekin hizketatutakoagatik, jende asko etorriko da. eta, beraz, Altsasun bost egun horietan denetariko mugimendua egonen dela uste dugu.

Antolakuntzan, lanean, jende mordoak bat egon beharko duzue.

J.: Zailena antolatzea da. Txanda pila egonen dira. Batez ere militanteek txanda asko bete behar izanen dituzte. Guk, esaterako, aisia baino gehiago, lan karga handia izanen dugula uste dut. Hori argi daukagu eta gogotsu gaude.

Nola irudikatu behar dugu Topagune hori Altsasun bertan?

N.: Hainbat gune izanen ditu. Usolarrainen eta Dantzalekun

kanpaleku bat egonen da. Dantzalekuko goiko zelaia gune nagusia izanen da. Baina herri guztia probestuko da Topagunea aurrera eramateko.

J.: Iortia kultur guneko zabalgunean Sutegi gunea deitu dutena egonen da. Guneak egitarau propioa izanen du kontzertu eta ikuskizunekin. Bertan sukaldea izanen da eta jendeak han jateko aukera izanen du.

Zein eskaintza du topaguneari?

N.: Kontzertuak, kirolak, hitzaldiak, bakarrizketak, kirol ikuskizun profesionalak eta militanteenak, eskualdeen arteko kirol probak... Aisiarako eta teoria edukiak lantzeko nahikoa gauza. Denak nahiko eleganteak izanen dira.

Teoria edukiak nola landuko dituzue?

J.: Batez ere hitzaldi bidez. Landuko dira: krisi kapitalista eta estrategia sozialista berrien oinarriak. Bestetik, ekonomia borroka ikuspegi sozialista batetik aztertuko da. Gainera, askatasun politikoen aldeko borrokaren garrantzia hizketagai izanen da. Baita zapalkuntzei aurre egiteko metodologia politikoak landuko dira. Horretaz aparte, Euskal Herriko egoeraren testuingurua ere landuko da.

Kontzertu, tailer eta abarretarako sarrera libre da?

N.: Bono orokorrak agortu dira. Igandera eta astelehenerako bonoak 16 eurotan eskuratu daitezke www.gks.eus webgunean. Gainera, asteleheneko bonoak kanpalekura sartzeko aukera ematen du. Sutegi espazioko egitarauko gauza batzuk publikoarendako zabalik egonen dira.

Topaketek zer uztea nahi zenukete?

J.: Guk landu nahi ditugun politika auziak jorratzea eta ez izatea bakarrik militanteen gauza bat; gure ideiak publiko guztiari zabaltzea.

Topaketan ondoren zer?

N.: Orain arte bezala jarraituko dugu, indar gehiagorekin eta komunitate indartsuago batekin. Orain arte bezala manifestazioak, hitzaldiak... Mugitzen, antolatzen jarraituko dugu. Dauden arazoetara adi egon beharko dugu, borrokara batuz.

J.: Topagunearen ondoren, egon diren eztabaiden arabera, hausnarketak eta ondorioak aterako dira. Balorazioa eginen da eta, hortik hasita, etorkizunean zer lanketa edo zer borroka aurrera eramanez ditugun, zertan lan egin beharko genukeen pentsatuko dugu.



Altsasuarrak Gartzia Ximenez kalean. ARTXIBOA

Altsasun udalaren hainbat lan hastear dira

Gartzia Ximenez kalearen zati bat egokitzeko lanak eta Ibarrea industrialdekoak

ALTSASU

Altsasuko Udalak Gartzia Ximenez kaleko 855 metro karratu eraldatuko ditu. Udaletxe pareko lorategiko izkinatik Zubeztia kaleko bidegurutzera arteko espazioan espaloiak eta errepidea altura berean egonen dira. Tarte hori oinezkoek eta ibilgailuek partekatuko dute, baina oinezkoek lehentasuna emanaz, eta trafikoa mantsoago ibiltzeko. Aldi berean, Alde Zaharra eta zabalgunea lotzeko modua izanen da.

Horretarako dagoen zorua kendu eta berria zabalduko dute, dauden arketen altuera zoru berriaren alturara jarriko dituzte. Errepidea dena galtzada harri koloreko asfaltoz egina izanen da. Euri ura jasotzeko, berriz, kanaleta jarraituak jarriko dira espaloien eta asfalto berriaren artean. Kale zati hori mugatzeko oztopo zutoinak jarriko dituzte. Hiru zebra bide margotuko dira eta haiei dagozkien seinaleak jarriko dira. Espazio hori data jakinetan (aste-buruak, festa egunak...) ixteko aukera ere aurreikusten du udalak. Horregatik oztopo zutoin batzuk jarri eta kentzeko modukoak izanen dira. Lanak Excavaciones y Transportes Orsa SM enpresak egingen ditu eta haren truke 132.356,36 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Lanak despeditzeko 30 egun izanen ditu enpresak.

Bi kale

Kontratu beraren barruan, Altsasuko Udalak beste bi kaletan konponketa lanak egitea aurrei-

kusi du. Batetik, Aldautia kalean, Lapurbide kalearen ondoko zatian, 150 metro karratuko azalera zoru berrituko dute. Bestetik, San Joan kalean, autobia hartzeko irteeraren parean, espaloien 30 m² berrituko dira euri urak egoki bideratzeko.

Ibarrea

Industrialdeko ur zikinak bilduko dituen sarea osatzeko lanen hirugarren eta azken fasea falta da. Horiak Lacunza Hermanos SM enpresari eman dizkio udalak 154.482,20 euroren (BEZ kanpo) truke. Enpresak zortzi aste izanen ditu lanak despeditzeko.

2019ean Ibarrea industrialdeko ur zikinak industrialdean jarri zen sare nagusiarekin lotu ziren. 2020an, berriz, Ibarmusuko ur beltzak jasotzeko eta haiek Geltoki auzoko hodi nagusira eramateko lanak egin ziren. Aurreko bi faseetan jarritako hodiak lotu behar dira. Horretarako, 130 metroko luzeran hodiak jarri behar dira. Horiak 53 metro trenbide azpian egingen dira. Han lehenik 1,2 metroko altzairuzko hodia sartuko dute eta haren barruan PVC-zko 31,5 cm-ko diametroa duen hodia sartuko dute.

Gehiago

Altsasuko Udalak aurreikusitako inbertsioen artean dago Garbitoki eraikineko igogailu hidraulikoa elektriko bategatik aldatzea. Lanak despeditu ondoren bigarren solairuan dagoen

makina gela hutsik geldituko da. Orona kooperatibak jarriko du igogailua 21.200 euroren truke. Garbitoki eraikinean berokuntza sistema guztia berritu eta galdara bakarra jarriko da. Horrela solairu bakoitzean berogailua piztuta edo itzalita egoteko, edo erregulazio desberdina izateko aukera izanen da. Gaur egun Garbitoki eraikinean bi galdara daude. Batak behe solairuan dagoen gimnasioa berotzen du. Besteak, bigarren solairuan dagoenak, lehen solairuko ludoteka eta Bake Epaitegia eta haien gaineko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza berotzen ditu. Lanak Climatizaciones Orio SM enpresak egingen ditu 19.765 euroren (BEZ kanpo) truke.

Gure Etxea eraikinean ere berokuntza instalazioa aldatuko da eta galdara berria jarri. Lanak eginda, gainera, galdara gela legedira egokituko da. Eraikinean zoru bero emailea dago jarrita. Solairu bakoitzean zirkuitu berria jarriko dira. Halakorik ez dagoen geletan zirkuitua jarriko da, gero berogailu edo bestelako aukeren bidez gelak berotzeko. Veolia Servicios Norte SAU enpresak

37.977,17 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu lanak despeditu ondoren. Azkenik, Signos Viales SM enpresak 21 zebra bide margotzeko Altsasuko Udalaren kontratua eskuratu du 7.154,18 eurorengatik (BEZ kanpo).

Deialdiak

Udalak Dantzaleku kirol gunerako sarbidea kontrolatzeko kontrol sistema ezarri nahi du. Hura Zelandi kiroldegiarekin zuntz optiko bidez lotuta legoke. Bestalde, futbol zelaira eta atletismo pistetara baita aldageletarako sarbidea kontrolatzeko sistema ere ezarri nahi du. Igerilekuen eraikinean ere gauza bera ezarriko da. Igerilekura sartzeko tornua jarriko da. Futbol zelaiko aldageletan zaintza kamera jarriko du, baita joko zelaia eta igerilekuak zainduko dituzten beste bi kamera. Hori guztia jarriko duen enpresari udalak 24.696 euro (BEZ kanpo) ordainduko dio. Aldi berean, Altsasuko Udalak herriko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetzako programa garatzeko deialdia egin du. Lizitazioa 7.883,6 eurokoa (BEZ kanpo) da.

LAN BILA ZABILTZA?

Eman izena Sakanako Mankomunitateko kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan poltsan!

Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarrizko kirol titulazioa izatea.

Izen ematea:

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com postan.

Erabiltzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udalek eta Mankomunitateak zein entitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan harremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

Mank
s a k a n a
Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua

Gipuzkoako arropa metak ateratzen hasiak

Hilabete bukaerarako Arbizuko pabilioiak eta Ziordik utzitako lantegia arroparik gabe geldituko dira

ARBIZU / ZIORDIA

Ziordiko lantegi batean arropa metak agertu ziren 2019ko irailaren erdialdean. Aurtengo garilean, berriz, Arbizuko bi pabilioitan arropa metak agertu ziren. Batean eta bestean agertutako arropa Gipuzkoan gaikako bilketaren bidez jasotakoa zela azaldu zuen Gurelurrek.

Arbizuko bi pabilioiak bi sakandarrek alokatuta dituzte. Azaldu dutenez, "gaika jasotako arroparen lehen baheketa egiten dute Gipuzkoan, merkaturatzeko. Gainontzekoa guk hartzen dugu, bigarren baheketa egin eta baliagarria den arropa Senegal, Kamerun edo Marokora bidaltzeko". Gelditzen den errefusa Herbeheretarra eramaten dute, han birziklatzeko. Pandemiarekin bi sakandarren pabilioia arropaz bete zen. Baina ezin zuten inora bidali mugak itxita zeudelako. Arropa gehiago iritsi zitzaenez, Arbizuko bi pabilioiak alokatu eta arropaz bete zituzten.

Osasun egoera onbideratzen ari dela dirudi, eta haietako batek esan digunez, "gure pabilioira eraman gabe, Arbizuko pabilioietan bertan ari gara arroparen baheketa egiten. Ona dena



Ziordin eraman gabeko arropa.

saltzeko bideratzen ari gara eta, gainontzekoa, birziklatzeko. Edukiontzia falta direnez Alacanten biltzen ari da Herbeheretako enpresa". Bestalde, Nafarroako Gobernuak haiekin harremanetan jarri da eta beharrezko baimen guztiak eskutan dituztela Ziordiko pabilioian botata zegoen arropa jasotzen hasi dira. "Geldi-geldi ari gara, eta asmoa da dena garbi uztea. Ziordian edukiontzi bat betetzeko adina arropa gelditzen da. Bi herrietan hilabete bukaerarako despeditu nahi ditugu lanak" azaldu digu.

DUELA 25 URTE...



Matrakan Global Dance 96

Musika elektronikoa "bakalao" izenez ezaguna zen garai hartan eta hari eskainia zegoen jaialdia larunbatean 21:00etan hasi eta igandeko 19:00etan despeditu zen. Dantzalekuaren aparkalekuan karpa handi bat jarri zen han beste diskoteka bat sortzeko. Matrakako jabeen eta udalaren akordioaren ondorioz, lakuntzarrak doan sartu ziren. 4.000 bat pertsona izan ziren jaialdian, baina eguraldi txarrak ez zuen espero zen jendetza erakarri. Hala ere, errepide bazterrean aparkatutako auto ilara Arbizuraino iritsi zen.

Trenbidea hobetzea eta bikoiztea eskatu dute

Nafarroa Trenaren Alde plataforma berriarena da eskaera. "Gaur egungo tren eredua birpentsatu beharrean gaude. Abiadura Handiko Trenak "izugarritzko ekonomia, gizarte eta ingurumen kostua luke"

SAKANA

Herrialdeko hainbat plataforma batzen dituen Nafarroa Trenaren Alde plataforma aurkeztu zuten atzo. Mikel Santamaria altsasuarak bozeramaile lana egin zuen. Esan zuenez, "trena garraio kolektibo eraginkor eta jasangarriena dela defendatzen dugu eta Europar Batasunaren apustuari helduz, trenaren sustapenean sinisten dugu merkantzia eta pertsonen garraiorako modu bezala. Gaur egun, bizi ditugun erronkak eta krisi klimatiko larria kontuan izanik etorkizuneko garraioa izateaz gain, izaera publiko eta soziala izan behar duela aldarrikatzen dugu".

Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroan trenak bizi duen errealitatea honela laburbildu zuten: "Errepide bidezko garraioa esponenzialki hazten doan heinean trenbidearen erabilera erabateko gainbeheran doa urtez-urte. Ez dira hobekuntzak egin garraio lehiakorra izan dadin. Pixkanaka hiltzen uzten ari dira". Bitartean Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako apustua egitea ez dute egoki ikusten.

Sei eskaera

Plataforma sortu berriak "gaur egungo trenbidearen ibilbidea Nafarroako tren beharretara egokitu dadin defendatzen eta aldarrikatzen" du. Horretarako, lehenik, "Nafarroako trenbide sarea hobetzea eta egokitzea eta trenbidearen bikoiztea aldarrikatu dute". Gaztigatu zuten, Teruel-Zaragoza eta Castejon-Logroño bideetan hori da Espainiako Gobernuaren apustua. Horregatik eskatu dute "Nafarroarako daukagun gaur egungo trenbide proiektuaren birbideratzea eta apustu garbi bat egitea gaur egun daukagun korridoreetatik mota guzietako trenen ibilera ahalbidetzeko, behin hobetuak eta egokituak izan direnean".



AHTko lanak gelditu eta dirua trenbide bikoizketara bideratzea eskatu dute. UTZITAKOIA

CROWDFUNDING BIDEZ 15.000 EURO LORTU NAHI DITUZTE PROPOSAMEN ZEHATZA LANTZEKO

Hori eginen balitz, "geltoki eta geratokiak irekiera ahalbidetuko da eta horiekin, eskualdeko garraioaren hobekuntza". Horregatik, plataformako kideek "eskualde buru guzietan geltoki zerbitzuak bermatzea eta hirietan, erdigunetik ahalik eta hurbilen egotea" eskatu dute. Aldi berean exijitu dute "tren zerbitzuen zabalkundearen aldeko apustu garbia egitea, gure lurraldea saretu dezaten herriak, hiriak eta industriaguneak batuz eta tren bidezko merkantzien garraioa areagotuz".

Nafarroako trenbide sarea "prestakuntza handiko bide batean bilakatu dadin, behar dituen hobekuntza tekniko guziekin doitzea" eskatu dute. "Ibilbide guztiaren birgaitze sakon" horren barruan sartu dituzte, "saihesbideak eta tunelak egitea edota kokagune gatazkatsuen desage-

rraraztea. Horrek guztiak trenbideak bere gaitasuna %150 handitzea ekarriko luke, eta abiadura punta eta batez ere, batez besteko abiadura, nabarmen igoko litzateke".

Nafarroa Trenaren Alde plataformako kideek azaldu dutenez, "Gaur egungo trenbide sarearen hobekuntzan egin beharreko inbertsioa ingurumenarekin askoz adeitsuagoa da, dagoeneko eraikirik dagoen korridorea baita eta askoz ekonomikoagoa, hobekuntza teknikoak eginen zaizkion arren". Plataformako kideek, azkenik, eskatu dute "behin Nafarroako trenbide sarea hobetua eta egokitua dagoela, oinarritzko trenbide sare europarrean sartzea".

Crowdfunding

Tren sozial baten benetako alternatiba bat landuko duen azterketa bat eginen dutela jakinarazi dute plataformakoek. Ignacio Rubin, Kimetz E. Muntixa, David Andres Barandica ingeniariak garatuko dute proposamena. 15.000 euroko kostua du lanak eta hura finantzatu ahal izateko Crowdfunding kanpaina abiaraziko du aurki plataformak.

"Mihia gogortu eta ez da mugitzen, laba bezala"

AITOR IRIGOIEN IRIGOIEN MINTZAKIDE PROGRAMAKO ARDURADUNA

Horregatik ikasitako edo dakigun euskara hitz egitea garrantzitsua da, zenbat eta gehiago mugitu mihia orduan eta errazago hitz egiten da. Mintzakidek laguntzen du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskara praktikatu nahi duten sakandarrek Mintzakide programan izena emateko aukera zabalik dute. Astean behin ordu bateko konpromisoa besterik ez da hartu behar.

Non ateratzen da goroldioa?

Hezetasuna dagoen lekuan. Materia organikoa behar dugu. Eta oinarri, ongarri bat behar du.

Geroz, mihian ere sortu daiteke goroldioa?

Jakina.

Geldi egonda, geroan eta goroldio gehiago hartuko du?

Gauza da norbait pasatzea eta hori dena mugitzea. Eta mugitzeko zer egin behar da? Norbait ibili atzetik edo norberak mugitu.

Horrek esan nahi du mihia dantzatzea, hizketan hastea.

Gure kasuan bai, behar dugu mihia pixka bat mugitu, eta ez gogortu.

Zergatik da hain garrantzitsua mihia ez gogortzea?

Hori da Palmako laba bezala: itsasora iristen da, gogortzen da eta ez da mugitzen. Mihia gogortzen bada, gero berriz hasteko zail xamarra.

Geroz, komeni da euskara mihian ibiltzea, arrankatzeko zailtasunik ez izateko.

Ez baduzu praktikan jartzen hizkuntza herdoildu, gogortu egiten da. Gero berriz hasteak, gainera, ematen dizu pereza. Eta ez zara hasten. Orduan, ikasi hala praktikatu behar da. Hori da beti euskaltegiko ikasleei esaten dieguna. Eta gutxitan egiten dute.

Jakindakoa berreskuratzeko, memoria bizitzeko, mihia dantzatzeko, hizketaldi batzuk ongi etorriak, ezta?

Jakina. Hau ez da bakarrik euskara ikasten ari direnendako zerbait. Hau da euskaraz dakiten guztiendako zerbait. Bere garaian ikasi dutenendako, euskaldun zaharrak, prak-



Aitor Irigoien Irigoien, Mintzakide programako arduraduna.

tikatu edo euskarari modu honetara lagundu nahi dutenendako: jendearekin inguratu eta euskaraz hitz egitea.

Horretarako da Mintzakide. Zer egiten da?

Hainbat motatako taldeak daude. Sakanan kafe bat edo pote bat hartzea elkartzeko dira, ordu bat edo bi egoten dira. Normalean astean behin. Egoten dira euskaraz hizketan. Mintzakideek bidelagun bat izaten dute. Batzuk paseatzera joaten dira. Beste batzuk kirola egitera. Edozein aitzakiak

balio du Mintzakide taldea sortzeko: filma ikusi eta ondoren hartaz hitz egin, erakusketa bat ikustera joan eta... Edozerk balio du. Helburua da beraiek gustura dauden moduren batean euskara praktikatzeko.

Mintzakideak eta bidelagunak aipatu dituzu. Zer dira?

Bidelagunak dira euskara oso ondo hitz egiten dutenak. Haiek dira taldearen martxa daramatenak, "arduradunak". Biltzen direnean, esaterako, momentu batean taldea isilik gelditzen bada, bera da besteei pixka bat

tiratzen diena. Mintzakideak dira euskara praktikatu nahi dutenak, edo praktikatu beharra dutenak.

Sakanan taldeak dagoeneko sortu dira?

Aurreko ikasturtetik heldu diren taldeak dira, zortzi talde aktibatuta dira. Badaude sortzeko bidean daudenak Lakuntzan, Iturmendin eta Urdiainen. Aurtengo nire helburua izanen litzateke pandemia aurreko martxa hartzea. Ea nola ateratzen den.

Euskara praktikatzeko interesa daukan sakandarrak zer egin behar du?

Edozein herritan, nahi den lekuan bildu daiteke. Horretarako 600 482 024 telefono zenbakira hots egin edo Whatsapp mezua bidali besterik ez da egin behar. Izen ematea dohainik da.

Mintzakidek berritasunik badu aurtun?

Aurtengo berrikuntza euskara praktikatzeko mendi talde bat sortu dela. Hasierako ideia da hilabetean behin elkartzeko. Izanen lirateke ibilbide errazak, sasoi guztiendako. Zailak behintzat ez. Hor elkartzeko den jendea naturaren gozame-

naz euskara praktikatzera. Aurreneko irteera hilaren 31n, igandean, izanen da Etxarri Aranatzeko.

Bakarren batek hots egin du interresa azalduz. Zein pauso ematen dituzue zuek?

Pertsona hori bidelagun izateko prest egonen balitz, nire lana izanen litzateke mintzakideak bilatzeko. Horretarako sare sozialak eta betiko kartelak erabiliko nituzke. Herri horretan eginen litzateke publizitatea. Ahalegin-duko nintzen bertako jendea lotzen. Inguruko herrietako jendea ere joan daiteke. Mundu guztia da ongi etorria. Ongi etortzen bazaio ordua eta lekua, joan daiteke.

Heldu den urtean Euskaraldia izanen da. Aitzakia polita izan daiteke bakarren batek izena eman eta gero Belarriprest izateko.

Aitzakia oso ona izan daiteke ondoren Euskaraldian beste modu batean aktibatzeko jendea. Mintzakiden izena emanda urte bateko epea duzu ohitura hori hartzeko eta Euskaraldia iristen denerako martxa hartuta izanen duzu eta jendeari ez zaio hain arraro egiten.

Oraingoz dauden Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Iruztzun	Asteartea	18:00	Iratxo
	Ostirala	19:00	Pikuxar
Arbizu	Zehazteko	Zehazteko	Zehazteko
	Zehazteko	Zehazteko	Zehazteko
Altsasu	Astelehena	16:00	Koxka
	Osteguna (bi astean behin. Euskalkia praktikatzeko)	20:00	Lezea
	Ostirala	09:00	Kaixo
Ziordia	Osteguna	16:00	Liburutegia



PORTUKO
akidemaja

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988





BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu



BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

948 460 037 Arbizu



Zuhatu eta Etxeberriko ikuspegia.

Etxebizitzari buruzko parte hartze prozesua

Etxebizitza aukeren inguruko jardunaldiak eta parte hartze saioak antolatu ditu Arakilgo Udalak

ARAKIL

Arakilgo Udalak Bizi Arakil parte hartze prozesua martxan jarri zuen urte hasieran Emun Aholkularitzaren laguntzarekin. Talde eragile bat sortu zuten udal ordezkariak eta zenbait herritarrek. Arakildarren parte hartzearekin, prozesuaren helburua da ibarrak eta bertako 12 herriek 2021-2031 hamarkadari begira dituzten beharrak jaso eta etorkizuneko erronkak identifikatzea. Horretarako urte hasieran 16 urtetik gorako arakildar guztiei galdetegi bat bidali zieten. Faltan dituzten zerbitzuez, ibar sentipenez, espazio berrien beharraz, ibar mailako proiektu beharraz, laborantza ereduaz edo azpiegitura handiez galdetu zitzaizen besteak beste.

Udalak jakinarazi duenez, "erantzuna bikaina izan zen, guztira 323 galdetegi jaso ziren, aukera zuten herritarren %38ak erantzun zuen". Behar eta kezka guztien artean bi nabarmendu direla gaztigatu du udalak: etxebizitza beharra eta balio anitzeko gela baten beharra. Hori ikusita udalak bi gai horietan sakontzea erabaki du, "etxebizitza beharren inguruan argazki osoago izateko".

Etxebizitza

Arakilen etxebizitza beharrari nola erantzun aztertzen hasi aurretik etxebizitzaren inguruan beste herri batzuetan dauden esperientzia eta proiektuak ezagutzeko aukera eskaini die udalak arakildarrei. Heldu den os-

tegunean, lastailak 14, Izurdiagan eginen da lehen jardunaldia. Han gizarte alokairurako Imotzen zaharberritutako etxebizitzaren proiektuaren azalpena eta *Passive housen* (etxebizitza pasiboak) aurkezpena izanen dira.

Lastailaren 21ean Hiriberrin Zeraingo Udalak gazteen emantzipazioa bulkatzeko eta adinekoak herrian gelditzeko egindako alokairu sozialeko etxebizitzaren berri emanen du. Horrekin batera, energia komunitateak zer diren azalduko da.

Parte hartze saioak

Bi egun horietako jardunaldien ondoren bi parte hartze saio irekiak eginen dira. Lehenengoa lastailaren 28an izanen da, Izurdiagan. Hartan galdetegiko etxebizitzari buruzko emaitzen azterketa eginen da. Horrekin batera, Arakilgo etxebizitza aukerak eta beharrak identifikatuko dira. Arakildarren konpromisoa zenbaterainokoa den ere ezagutuko da. Bigarren parte hartze saioa Hiriberrin Arakilen izanen da azaroaren 4an. Orduan behar errealean inguruan hitz eginen da; dauden etxebizitza aukerak dituzten indargune eta mehatxuak eta aurrera begirako pausoak zein izan beharko luketen zehaztuko dituzte. Saio guztiak 18:00etatik 20:00etara izanen dira. Izen emateko: telefonoz: 948 500 101 edo 634 584 226; posta elektronikoz info@arakil.net edo arakilkultura@gmail.com edo www.arakil.net webgunearen bidez

Elkarlaneko robotikaren berrikuntzak Irurtzunen

Dinabide teknologia coworkingak Robotiq Tourraren lehen saioa hartu zuen asteartean. 40 enpresetako ordezkariak izan ziren jardunaldian. Elkarlaneko robotika ezagutzak berri eta berritutako eskaintza ezagutzeko

IRURTZUN

Sabadellgo Vicosystems enpresak Robotiq Tourra antolatu du estreinako, Irurtzunen asteartean hasi eta ondoren Madril, Pontevedra eta Valentzia bisitatuko dituena. Saio horietan guztietan elkarlaneko robotikaren arloan dauden azken berrikuntzak eta haien aplikazio praktikoak ezagutzeko aukera egonen da. Izan ere, makinak erabiltzen zituzten propio trebatutako teknikariak izan ziren Irurtzunen. Topaketak enpresetako ordezkariak esperientziak trukatzeko balio izan zuen.

Sakanako Garapen Agentziako industria eta zerbitzu teknikari Odei Arregi Azpitartek azaldu duenez, Vicosystems, Iruña Tecnologias, Robotiq eta Dinabideko 14 partaidez aparte, beste 38 pertsona egon ziren Dinabiden. Haien artean Sakanako hiru enpresetako hamar pertsona izan ziren. Guztira 40 enpresetako ordezkariak bildu zituzten Dinabideko saioak. Sektoreez galdetuta, Arregik azaldu duenez, "erabat industriara bideratuta hainbat sektoretako enpresetako ordezkariak etorri ziren: automatizaziokoak, fabrikazio metalikoko eraldaketa prozesuetan parte hartzen duten enpresak, fundizioak, garraioa, eolikoa eta abar. Industria arlokoak denak, baina partaidetza heterogeneoa izan zen".

Antolatzaileak

Vicosystems enpresatik azaldu dutenez, "elkarlaneko robotikan eskarmentuak eta sektoreko fabrikatzaile nagusiekin urteetan egin ditugun aliantza indartsuek aukera eman digute beti azken joeren berri izateko, eta, aldi berean, gure tokiko bezeroei produkturik berritzaileenak eskaintzeko aukera eman digute".

Testuinguru horretan sortu dute Robotiq Tour by Vicosystems, "berrikuntza hori maila nazio-



Dinabiden 30 enpresetako ordezkariak elkartu ziren. SGA

"ZERBITZUA EZAGUTZEAN HASTEN DA GURETAKO HAIN GARRANTZISUA DEN HARREMANA"

nalean hedatzeko helburuarekin, herrialdeko hainbat txokotara eramanez, beste erkidego batzuetako aliatuen eskutik, zeinekin lankidetzat estua lotzen duen". Robotiq produktuen "soluzio berritzaileenak" aurkeztuko zituzten asteartean Irurtzunen, "aplikazio eta sektore ugari ase ditzaketenak". Gainera, Robotiq produktuak pertsonalki ikusi eta probatzeko aukera izan zuten parte hartzaileak. Robotiq enpresako bi arduradun ere izan ziren Irurtzunen, Etienne Samson eta Daniele Pamparana. Enpresa kataluniarrak Irurtzun-go aurkezpenarako Iruña teknologias de automatización SM enpresaren laguntza izan zuen.

Hain zuzen Dinabidek azken enpresa horrekin duen harremanagatik egin zen saio hori Irurtzunen asteartean. Arregik azaldu duenez, "Iruña teknologias de

automatización SM-koek aurretik prestakuntza batzuk eman dituzte gure instalazioetan eta bertan dugun UR3 elkarlanerako robota ere beraien bitartez eskuratu genuen". Teknikariak azaldu duenez, halakoaren moduko ekitaldiak hartzea "enpresa askok Dinabide ezagutzeko balio dute. Atzo goizean ditugun teknologiak eta gainerako guneak ikusi zituzten. Gainera, bisitatzen gaituzten enpresetako ordezkariak Dinabideren funtzionamendua eta dituen helburuak ulertu zituzten. Zerbitzuak ezagutzeko hasten da guretako hain garrantzitsua den elkarlan harreman hori".

Sakanako Garapen Agentziako teknikariak azaldu duenez, "elkarlan posible baterako harreman" sortzeko aukerak izanen dira hilaren 14an, Club de Marketing-eko elkartekideen erakusketa eta ezagutza bisita programatuta baitute. 28an, berriro, ACAN, Nafarroako Automozio Klusterrekoak hartuko dituzte.

Zortzi

Pertsona kopuru hori da gaur egun Dinabideko Coworking espazioan lanean ari dena.



Kamioia bide bazterrean botata. FORUZAINGOA

Hondakin bilketako kamioiak istripua izan du

Kamioia irauli egin zen Unanun. Gidaria eta peioa onik daude. Sakanako Mankomunitateak hondakinen bilketa bermatuta dagoela jakinarazi du. Kamioi flota berritzeko aurtengo ahalegina alferrikakoa izan da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketa Zerbitzuko kamioi batek istripua izan zuen Unanuko Errota bidean astelehenean. Unanun bilketa egin ondoren errepiderantz zihoala, Leziza errekararen ondoan irauli egin zen kamioia. Gidaria eta peioa zihoazen ibilgailuan. Kolperen bat eta hartutako sustoa

badute ere, onik daude biak. LAB sindikatuak eskatu du istripuaren nondik norakoak argitzea. Aldi berean exijitu du "berriro horrelakorik ez gertatzeko neurriak hartzea".

Ezbeharraren ondorioz, astelehenean Mank-ek Arakilen eta Ergoienan (Unanu salbu) ez zen errefusaren bilketarik egin, astearte arratsaldean baizik. Hon-

dakin Zerbitzuko teknikari Olatz Garde Mazkianek azaldu duenez, "bilketarako zortzi kamioi ditugu oraintxe. Horietako bat Iruñerriko Mankomunitateak utzitakoa. Horiekin hondakinen bilketa bermatuta dago". Furgoneta batek eta garbigune mugikorak osatzen dute ibarreko erakundearen Hondakin Zerbitzuaren ibilgailu flota.

Zuzentzekoak

Gardek azaldu duenez, "istripua izan zuen kamioia joan den aste-arte tailerrean egon da, atzeko aldeko bilketa kutxako konponketa bat egin zioten. Horregatik ez zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) pasata. Txanda atzo 11:00etarako emana zioten". Ibarreko erakundeko lehendakari David Oroz Alonsok azaldu duenez, "IATrekin halakorik berriro ez pasatzeko barne mekanismoak martxan jarri ditugu. IAT gabe ibiltzea ezin da berriro gertatu". Istripuaren zergatiaz galdetuta, biek azaldu dute zaila dela jakitea arrazoiak. Hala esan diete tailerrean. Mekanikarien balorazioaren zain daude, baina biek ere duten susmoa da kamioia erabilezin gelditu dela. 20 bat urte zituen ibilgailuak.

Orozek esan duenez, "azken urteetan kamioi flota berritzeko ahalegina egin dugu. Eta aukeren arabera horretan segitu nahi dugu, kamioiak zaharrak direlako". Mank-ek 2019an eta 2020an kamioi bana erosi zuen. Bakoitzak 135.000 euro balio zuen. Aurten beste kamioi konpaktatzaile bat erosi nahi zuten, baina deialdia hutsik gelditu da. Enpresek eskaintzarik ez aurkezteko arrazoiak eman du Orozek: "enpresek ez dituzte halako kamioiak stockean, propio muntatzen dituzte. Eta horretarako denbora behar da. Nafarroako Gobernuak erosketa egiteko dirulaguntza berandu eman zigun, uda bukaeran. Baina baldintza zen azarorako inbertsioa egitea. Enpresendako epe horretan kamioia muntatzea ezinezkoa zen, eta ez da inor aurkeztu".

Hobetzeko gehiago

Mank-eko presidentek azaldu duenez, beraien nahia izanen da

heldu den urtean gutxienez kamioi bat erostea. Edo bi, bat materia organikoaren bilketarako eta bestea gainontzeko bilketarako. Horretarako, jakina, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak garaiz iritsi beharko liriateke. Izan ere, Mank-en aurrekontua osatzen dutenak ibarreko udalak dira. Eta haiek, Mank bezala, edozein inbertsio egiteko foru administrazioaren menpeko dira.

Ibarreko erakundea bezala udalek ere hainbat arazo izaten dituzte Nafarroako Gobernuko dirulaguntza deialdiak berandu ateratzeagatik, esate baterako, nekazaritza azpiegiturak hobetzeko edo basolanak egiteko. "Deialdi ugarietan arazoa beranda, berandu egiten da eta gaizki ibili behar izaten dugu gero gauzatzeko. Hori bai, Nafarroako Gobernuak gero dena epean egitea edo dena ongi dagoela exijitzen du. Bestela, lana egin da eta dirulaguntzarik gabe geldi zaitezke", azaldu du Orozek.

Gobernuko kontseilariak horren jakitun dira eta haiekin egoten diren bakoitzean gertatutakoak azaltzen dizkiete. Mank-eko lehendakariak argitu duenez, "aurreko legegintzalditik Nafarroako Gobernuan borondate aldaketa ikusten da. Haiek esaten digute arazoak dituztela kontu hartzaileekin-eta, eta horrek atzeratzen dituela deialdiak. Azkartasuna eta malgutasuna, findu beharreko gauzak dira".

SAKANAKO MANKOMUNITATEAK HELDU DEN URTEAN KAMIOI BAT EDO BI EROSI NAHI DITU

Desfibriladorearekin batera etorri den ikastaroa

Lehen sorospen ikastaroa ostiralean despeditu zen. Auzoan jarri berri dute desfibriladorea

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzeju etxe-ko auzoan desfibriladorea jarri berri dute. Hura erabiltzen ikasteko ikastaro teoriko-praktikoa egin dute. Teoria Sakanako Mankomunitatearen egoitzan egon

ziren bi saioen bidez egin zuten batzuek, online besteek.

Ostiral arratsaldean saio praktikokoaren txanda izan zen. Eta, horretarako, medikua, erizaina eta suhiltzailea joan ziren Lizarragako Azi Iturri elkartera. 22

pertsona elkartu ziren ikasitakoa praktikan jartzera; lizerratarrekin batera etxarriarrak eta baikaquarrak ere bazeuden. Guztiak alde batetik, desfibriladorea erabiltzen trebatu ziren. Eta, horrekin batera, larrialdi kasuan lehen sorospenak nola egin ere. Hasieran denak elkarrekin egon ziren praktikak egiten eta, ondoren, hiru taldetan banatuta segi zuten. Horretan lau ordu eman zituzten, 16:30etik 20:30era. Despeditzeko auzate txiki bat izan zen.



Azi Iturri elkarrean lehen sorospen ikastaroa egiten. UTZITAKOIA



Patxi Alegre Garcia iratxo elkarteko bazkide egunean. ARTXIBOA

Irurtzunen lehena eta oraina argazkitan

Patxi Alegre Garciak irudien bidez herriko historia laburra osatu du. Garai bateko irudi zaharren aldamenen toki bereko gaur egungoa jarri du. Bilduma horren emanaldia gaur, 19:30ean, egingen du kultur etxean

IRURTZUN

Pena bat adierazi du lehenik Patxi Alegrek: "lehengo Irurtzundik ez da ezer gelditzen. Zoritxar hori dugu". Otamendi fonda, Plazaola, txerrien plaza... zerrendatzen hasi da. "Argazki-larritza eta musika beti gustatu izan zaizkit. Eta herriko argazki zaharrak biltzen hasi nintzen. Proiektua utzi eta hartu ibili naiz". Ez daki zehazten zenbat denbora pasa den Irurtzuno argazki zaharrak biltzeko "ilusioa piztu" zitzaionetik, "urteak" erantzun du.

Argazki zaharren bilketa egiteko irurtzundarregana jo zuen lehenik Alegrek. Interneten ere han eta hemen bilatzen aritu da. "Nora jo jakin gabe gelditu naiz". Hala, hasiera batean buruan zuena 20 minutuko proiektio bat zena 40koa bihurtu da. Alegrek berak aitortu duenez, "elur bola bezala hazi da". Azaldu duenez, "inolako asmorik gabe sortutako proiektua zen, baina egin ikusi nuenean, jendearekin partekatu

beharra nuela ikusi nuen". Gaineratu duenez, "pentsatzen nuen jendea aspertu egingen zela, eta, horregatik, proiektio motza nuen buruan. Baina argazkiak ikusten jendea ez da aspertzen".

Kalez kale

Argazki proiektioa aurkezpen txiki batekin abiatzen da, "herriaren historiari buruzko pintzelkada batzuk dira". Alegrek lanari buruzko zehaztapena egin du: "duela urte batzuk *Diario de Noticias*ek herriko argazkiekin liburua argitaratu zuen. Gehienak jendea ziren, baina nik tokiak nahiago ditut". Kultur etxera argazki emanaldia ikustera joaten denak herriko kaleetan barnako bidaia batean sartuko da,

**"NIRETAKO ZENA
EGINA IKUSTEAN,
JENDEAREKIN
PARTEKATU BEHAR
NUELA IKUSI NUEN"**

garai bateko eta egungo itxurak konparatzeko aukera izanen du. Baita industrialde eta ikastetxearena ere.

Emanaldiaren ondoren "elur bola" Irurtzuno argazki zahar gehiagorekin handitzen segitu dezakeela aipatuta, Alegrek esan duenez, "zaletasuna da eta ongi etorriak izanen dira. Baina zaila da beste argazki batzuk egotea". Hala ere, irurtzundarrari errena sartuta gelditu zaio, ez baititu bi argazki lortu. Haietako baten berri eman du: "Atakondoa eskolaren sarreran garai batean Adrianen sutegia zegoen, ospetsua zena. Aurreko aldean behi eta zaldi azienda ferratzeko zaldia zuen eta atzeko aldean bere sutegia. Astearteetan, azoka egunetan, mugimendu handia izaten zen. Hori niretako funtsezko argazkia zen, desiratzen nuen argazkia zen. Baina alabari galdetu eta ez dutela, orduan inork ez zituela argazkiak egiten esan zidan". Proiektua ez du itxiko. Bera ez da geldi egotekoa.



Karrika Nagusia azoka bihurtuko da igandean. ARTXIBOA

Arbizuko udazkeneko azoka igandean izanen da

Arbizuko Udalak egitaraua prestatu du larunbat arratsalderako eta igande goizerako

ARBIZU

Gauzak ongi, Arbizuk igandean Txistor Eguna hartuko luke. Baina COIVD-19 gaitzak eragindako pandemiagatik udalak egitaraua moldatzera behartuta ikusi du bere burua. Jon Ander Mendinueta Iribarren kultur zinegotziak azaldu duenez, "heldu den urtean berriz, Txistor Eguna prestatuko dugu, arbizuarren artean seinalatutako egun hori lehen bezala bizitzeko asmoz". Egitaraua moldatuta, larunbaterako kultura emanaldiak iragarri dituzte. Igande, berriz, 42 salmenta postu izanen dira.

Egitaraua

Lastailak 9, larunbata

- **18:15** Eneritz Artetxe ipuin kontalaria, udaletxean.
- **19:00** Nerepe, plazan.
- **19:30** Pintxo dastaketa.
- **20:00** Hiru H taldearen kontzertua, plazan.


Lastailak 10, igandea

- **10:00** Azokaren irekiera.
- **12:00** Sakanako Trikitilariak.
- **14:00** Azokaren itxiera.



Asteburu jendetsua Etxarrin

Feriena izan behar zuen larunbat arratsaldeak garai bateko argazkien eta lanabesen erakusketa hartu zuen. Igandea artisau eta ekoizleek plazako estalopean opatu zuten aterpea euria egin baitzuen. Kioskoan 17. Sakanako gazta txapelketa jokatu zen. Uharteko Sustrai gaztak irabazi zuen lehiaketa, Arruazuko Albi eta Arbizuko Araña-Etaioren aurretik.



Tentsio handiko partida espero da gaur Altsasun, Laso eta Ezkurdia Lau eta Erdira sasoi betean iritsi direlako.

"Helburua txapela da; horretarako entrenatzen dugu"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Joseba Ezkurdiak Unai Laso Lizaso izango du aurkari gaur, ostirala, Altsasun, Lau eta Erdiko Txapelketan. Ikusmina handia da, goi mailako lehia espero delako

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU / ALTSASU Lau eta Erdiko Txapelketako final laurdenetako ligaxkako 1. jardunaldiko partida bat hartuko du gaur, ostirala, Burunda pilotalekuak (ETB1, 21:30ean), pandemia hasi zenetik Altsasun jokatu den lehenengo pilota jaialdi profesionallean. Joseba Ezkurdiak Unai Laso izango du aurkari, interes handia piztu duen partidari. Ezkurdia azken hiru urtetan bitan izan da Lau eta Erdiko txapelduna (2018 eta 2019), eta Laso aurreko astebu-

ruko final zortzirenetan Peña II.a irabaztetik dator, udako denboraldi bikaina egin eta gero. Bi pilotariek "partida oso zaila" izango dela aitortu zuten. Lasok aipatu zuenez, "Ezkurdiak agian udan ez du bere benetako maila

"LASORI EZIN DIOT EROSO JOKATZEN UTZI, BESTELA PILOTARIAK DANTZAN JARTZEN DITU"

eman, baina txapelketetan eta Lau eta Erdikoan hazi egiten da". Beraz, lehia gogorra dago jokoan, urrea balio duen puntua.

Jaialdia zabalatzeko, Promozio-ko Lau eta Erdikoan Zabalak Salaberria izango du aurkari, eta azken partidari, Irribarria eta Zabaleta Peñaren eta Mariezkurrenaren kontra ariko dira. **Sekula baino finago ikusten zaizu Joseba, sasoiari.**

Txapelketa hau gogoz prestatu dut. Uda ez zen nik nahi bezala atera. Ez nabilen gustura, ez

buruz, ez jokoz ez fisikoki, eta abuztuaren hasieran erabaki nuen Lau eta Erdiko Txapelketan zentratuko nintzela. Beraz, denbora dexente daramat txapelketarako fisikoki prestatzen eta nutrizioa zaintzen, eta uste dut Lau eta Erdira une onean iritsi naizela. Ea nerbioei eta tentsioari ongi eusten dieran.

Agerikoa da zure aldaketa. Zenbat pisu galdu duzu?

Beti gustatu izan zait Lau eta Erdira finago heltzea, baina aurreten kilo gehiago jaitsi ditut, bospasei inguru. Txispa mantendu dut, pilota eskutik azkar ateratzen zait, eta hori da garrantzitsuena. Nire buruarekin ere konfiantza gehiagorekin nabil; azken bizpahiru partidatan ere sentsazioak hobek izan dira, hobeki sentitzen naiz eta azken entrenamenduak oso onak izan dira. Gustura nago, burua lasaiago eta gogotsu. Ea sasoi aprobatzen dudana.

Lau eta Erdiko final laurdenetako ligaxkari ekiteko aurkari deserosoa egokitu zaizu, Unai Laso.

Bai, aurkari gogorra da. Udan sekulako mailan aritu da, konfiantza ikaragarriarekin eta txispa askorekin, eta partida zaila dut aurretik. Unai pilotari arriskutsua da, aurreko asteburuan Peña 12 tantoan uztetik dator, eta nik nirea ongi egin beharra dut partida hau aurrera ateratzeko aukera izateko. Hortaz, burugor etorri beharko naiz, guztiz mentalizatuta.

la urtebete profesional mailatik kanpo egon eta gero, espero al zenuen Lasok ematen ari den maila emango zuenik?

Tarte horretan afizionatuen mailan aritu zenean agerikoa zen aritu zen partida eta txapelketa guztietan oso ongi zegoela. Unai goian aritzeko izaera berezia du. **2019an, Lau eta Erdiko zure bigarren txapela lortu zenuen txapelketan, agian partidari gogorrena beraren kontrakoa izan zen.**

Bai, final laurdenetako ligaxkako bigarren jardunaldian beraren kontra aritu nintzen eta partida oso gogorra izan zen. Bera partidaren jaun eta jabe zen, eta ni bere atzetik ibili nintzen, kateatuta, baina orain arte egin dudana erremontadarik handiena egin nuen: 21 eta 13 galtzetik 21 eta 22 irabaztera pasa. Partida hartatik ikasi beharra dut oraindik; ezin diot eroso jokatzeko utzi, bestela pilotari sekulako abiadura ematen dio eta pilotariak dantzari jartzen ditu. Nire erritmoa ezar-

Bakaikoa Promozioan

Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarrak Promozio Mailako Lau eta Erdiko Txapelketan parte hartuko du. Final laurdenetako ligaxkako 1. jardunaldian, Bakaikoak Alberdi izango du aurkari bihar, larunbata, Balmasedan jokatu den norgehiagokan.

tzen eta ahalik eta gehien agintzen saiatu beharra dut.

Azken hiru urtetan Lau eta Erdiko bi txapel jantzi dituzu. Hortaz, zure burua txapela jantzeko fabaritoen artean ikusiko duzu.

Nire burua fabaritoen artean ikusten dudana ez dakit, baina txapela nahi dudala, bai; horretarako entrenatzen dut. Nire azken entrenamendu guztiak txapelketara ahalik eta hobekien iristeko izan dira, eta helburua txapela da. Badakit oso zaila dela, eta pilotari asko gaudela txapel horren borrokan, eta nik ere hor egon nahi dut. Talde zaila egokitu zait, Urrutikoetxea, Jaka eta Laso aurkari oso gogorrak direlako, baina konfiantza dut, eta nire lana ongi egiten badut, aukerak izango ditut.

Pandemia zaleak eta pilotalekuko giro hori faltan botatzen zenituela zenion. Zorionez, giroa itzuli da, eta horrek ere mesede egingo dizu.

Bai, eta asko gainera. Pandemia garaian sufritu dut. Buruz ez naiz ongi ibili, ez nuen sentsazio onik. Aldaketa behar nuen, frontoiko giro hori eta jendearen berotasun hori jasotzea, eta une honetan hori asko eskertzen da. Giro horrekin jokatzeko motibatuta egiten zaitu, eta pilotariok asko eskertzen dugu pixkanaka erritmo hori hartzea.

Zer iruditzen zaizkizu Burunda pilotalekuan egindako berrikuntzak? Lurra berri egin dute. Aurreko ostegunean entrenatzen egon nintzen eta gustatu zait. Ezker paretan eta frontisean *extraño* batzuk egiten jarraitzen du eta jokatzeko frontoi zaila da, baina gustura aritzen naiz. Etxetik hurbil denez, gertukoak frontoira etortzera animatzen dira, eta sentsazioak politak dira. Ea hori aprobetxatu eta partida ona egiten dudana.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Mendi 0-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Lerinés 12

7 Lagun Artea 5

HURRENGO JARDUNALDIA

Atsedernaldia

Lagun Artea, atsedeen hartzera

Lagun Artea 6 jardunaldi jokatuta iritsi da atsedeen jardunaldira.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Castejon 1-8

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Mulier 12

10 Altsasu 0

HURRENGO JARDUNALDIA

OSTIRALEAN

20:00 Univ. Navarra - Altsasu (Iruñea)

Altsasu, buelta ematera

Azkeneko porrota ahaztuta, gaur Universidad de Navarra du aurkari.

FUTBOL PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Arenas 4-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 12

7 Etxarri Aranatz 7

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Arrotxapea - Etxarri (El Irati)

Etxarri, bide onetik

Arenasen kontrako 3 puntuak lortuta, Amaiairen kontra ere asmo bera du Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasuk atsedeen jardunaldia zuen

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Arrotxapea B 7

4 Altsasu 6

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Altsasu (Dantzaleku)

Altsasuk Berriozar hartuko du

Saillapenean 4. postuan dago Altsasu, eta 2. postuan Berriozar.

Beltza Urrezko Aizkolarietan eta Resano finaletik kanpo

AIZKORA Goizeder Beltzak Urrezko Aizkolarietan kanporaketa jokatu du igandean Leitzan

Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga jokoan da. Igandean bigarren kanporaketa hartuko du Leitzako Amazabal pilotalekuak, 12:00etan. Jokin Urretabizkaia "Basozabal", Hodei Ezpeleta, Goizeder Beltza etxarriarra eta Oier Kañameres lehiatuko dira. Zazpi enbor erdibitu beharko dituzte hainbat modalitatetan. Lehendabiziko biak urriaren 17an Lizarran jokatuko den final handirako sailkatuko dira.

Resano finalik gabe

Larunbata ez zen Iban Resano Igoaren eguna izan. Aizkolari dorrobarrak Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zuen Lekunberrin eta finalerako txartela lortu ahal izateko lehen bost postuetan sailkatzeko zuen asmoa bertan behera geratu zen. Ez zen batere fin ibili, azkena sailkatu zen, zortzigarren (19:16) eta 1. maila galdu du. Datorren urtean 2. mailan lehiatu beharko da.

Aldiz, Iker Vicente alde handiarekin gailendu zen (13:56). Berarekin batera Eneko Saralegi, Julen Olano, Jon Rekondo eta Joxean Etxeberria aizkolariak lortu zuten azaroan Donezteben jokatuko den final handirako txartela.

ARETO FUTBOLA

Asteburuak dakarrena

Gizonezkoen 3. mailan, larunbatean Aralar Mendik Kirol Sport hartuko du 19:00etan eta Xotak Gazte Berriak taldea, 20:00etan. Emakumezkoen senior kategoriako 1. mailan Xotak Garbayo Chiviteren kontra jokatu du larunbatean, Cintruenigon, 12:00etan. 2. mailan Xotak Cantera taldea hartuko du larunbatean, Atakondoan, 11:00etan.

Errekorrarekin itzuli zen Mendira Joan Etorria

MENDI LASTERKETAK Euriari eta hotzari aurre eginez, Mikel Beunza (45:24) eta Maria Ordoñez (52:14) gailendu ziren 46. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrian. Ordoñezek 4 segundotan ondu zuen emakumezkoen errekorra. 35 sakandar sailkatu ziren

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ Euria gogotik ari zuela jokatu zen igandean Udaberri elkarteak antolatutako Etxarri Aranazko 46. Mendira Joan Etorria mendi lasterketa. Plazatik abiatuta, Hartzabalera igo eta atzera ere plazara jotzea zuten erronka izena eman zuten 102 korrikalariak (10 km eta 557 metroko desnibela), eta horietatik 85ek hartu zuten irteera. Ziztu bizian abiatu ziren korrikalariak, eta horietatik 81ek lortu zuten proba despeditzea, goiz oso desatseginean. Euria, hotza eta lohia, lohi asko topatu zuten bidean korrikalariak, eta guztiz lokaztuta iritsi ziren plazako helmugara. Baina lasterketaren leloak dioen bezala, gustoko tokiyen, aldapaik ez.

Aipatzekoa da Etxarriko probak betiko lasterketaren itxura hartu zuela, guztiz. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, jende mordo bildu zen plazan eta gertuko kaleetan korrikalariak animatzen, plazan artisauen azokako postuak zeudela eta gazta txapelketa erabakitzen ziren bitartean. Bukaeran, Udaberriko kideek eta boluntarioek prestatutako auzate ederraz gozatu zuten korrikalariak.

Kilometro Bertikalean bezala

Partaideen artean izen oso ezagunak zeuden. Baita ezagunak direlako, herrikoiak. Jakina, izen ezagun horiek sailkatu ziren lehen postuetan, eta duela bi aste Uharte Arakil-Beriain Kilometro Bertikalean gertatutakoa errepikatu zela esan daiteke. Kasu honetan ere, Beriainen bezala, Txurregi taldeko Mikel Beunza izan zen azkarrena, Bargako Joan Etorria 45 minututan egin eta gero (45:24). Alkotzeko korrikalaria atzera ere Xabier Macias iruindarrari gailendu zitzaion (45:39). Beriainen minutu pasako aldea atera zion Beunzak Macias, baina Etxarri



Maria Ordoñez, eskuinean, Bargan gora.

Aranatzen, aldiz, aldea txikiagoa izan zen, 15 segundokoa. Beunzak azaldu zuen igoeran aldea atera behar zuela argi zuela, baina hasieratik Macias gertu izan zuela. "Atzean nuen, itsatsita, eta azken txanpan ez dut atzera ere begiratu izan nahi" nabarmendu zuen, irribarrez primerako sasoiaren dagoen 46 urteko beteranoak. Denboraldi bikaina egiten ari da, eta baita Xabi Macias ere. Hirugarren postuan Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra sartu zen (46:33). Beteranoen sailkapenean, Mikel Beunza, Sergio Serrano eta Joseba Lasarte izan ziren lehenak.

Emakumezkoetan Maria Ordoñez izan zen podiumaren kaxoi

KM BERTIKALEAN BEZALA, TXURREGIKO BEUNZA ETA ORDOÑEZ GAILENDU ZIREN ETXARRIN

altuenera igo zena, Uharte Arakilen bezala. Ordoñez lehenengoz aritu zen Etxarri Aranazko proban eta ikusgarri ibili zen: Virginia Perezek Joan Etorrian ezarritako emakumezkoen errekorra (52:18) 4 segundotan apurtu zuen (52:14). Beraz, txapela eta trofeo jasotzeaz aparte, errekorra apurtzeagatik gazta ederra lortu zuen 28 urteko iruindarrak. Txurregi taldeko gaztea ongi moldatu zen lohi artean eta bere garaipena sendoa izan zen, ia 8 minutu atera baitzizkion Haizea Ramirez de Alda altsasuarrari (1:00:02). Ilargi Perez iruindarrak osatu zuen podiuma (1:00:34). "Indartsu atera naiz, eta mutilen parean aritzen saiatu naiz, gehiago motibatzen. Gustura asko gustatu zait" aitortu zuen Ordoñezek helmugan. Beteranoetan, Erkuden San Martin etxarriarra izan zen lehena (1:06:12), Beatriz Martinezen eta Gurutze Ubedaren aurretik.

Sakandarrak Joan Etorrian

Gizonak

1. Mikel Beunza	45:24
3. Beñat Katarain	46:33
12. David Mutiloa	53:57
13. Beñat Anda	54:24
15. Joseba Galarza	54:59
17. Asier Ansa	55:24
18. Unai Razkin	55:26
19. Ioseba Iza	55:26
10. Ander Galarza	55:46
25. Mikel Satrustegi	57:20
27. Ibon Ubeda	57:25
28. Aimar Araña	57:30
30. Carlos Mañeru	57:37
31. Alberto Razkin	57:38
33. Joxeja Maiza	58:00
36. J. Daniel Lakuntza	59:22
43. Iñaki Agirre	1:00:58
45. Asier Gartzandia	1:01:05
46. Jon Igoa	1:01:06
47. Xabier Etxeberria	1:01:19
48. Juan Mariñelarena	1:01:25
49. Asier Urkia	1:01:30
50. Josu Jaka	1:02:16
51. Unai Kintana	1:02:16
52. J. A. Salgado	1:02:27
57. Santi Agirre	1:05:27
58. Araitz Jaka	1:05:48
60. Marcos Jose Rocha	1:06:21
62. Rafael Lakuntza	1:06:48
79. Patxi Atxa	1:20:36

Emakumeak

9. Maria Ordoñez	52:14
37. Haizea R. de Alda	1:00:02
54. Marina Zabala	1:03:10
56. Eneritz Karasatorre	1:05:21
59. Erkuden S. Martin	1:06:12
63. Maite Zabaleta	1:07:25
71. Gurutze Ubeda	1:11:42

35 sakandar

Etxarri Aranazko proba osatu zuten sakandarren artean etxarriarrak ziren nagusi. Ildo honetan, antolakuntzak lehen hiru etxarriarrak saritu zituen. Gizonetakoetan Beñat Anda izan zen lehena (54:24), sailkapen absolutuan 13. postuan sartu zena, eta emakumeetakoetan Eneritz Karasatorre (1:05:21), sailkapen absolutuan 56. postuan sailkatu zena.

Beraz, eguraldi kaxkarrari aurre eginez egun eta lasterketa polita izan zen igandeko Etxarri Aranazkoa.

EURIA, LOHIA ETA HOTZA IZAN ZIREN PROTAGONISTA, BAINA KORRIKALARIAK GUSTURA ARITU ZIREN



Beñat Katarain, Mikel Beunza eta Xabier Macias, helmugan.



Alberto Razkin eta Carlos Mañeru, lehertuta.



Eneritz Karasatorre, helmugara bidean.



Aimar Tadeo esprintean gailendu zen. UTZITAKOA

Aimar Tadeok garaipenarekin despiditu du denboraldia

TXIRRINDULARITZA Sakana Group-Aralar taldeko juniorrak II. Atarrabia Trofeoa irabazi zuen igandean

Txirrindulari juniorrek eta kadeteek igandean despiditu zuten 2021 denboraldia, II. Atarrabia Trofeoa lasterketan. 78 kilometroko lasterketa gorabeheratsuan mugimendu handia egon zen, eta tropela guztiz apurto zen. Helmugara bi txirrindulari iritsi ziren batera, eta euren arteko esprintak erabaki zuen garailea. Azkenean, Aimar Tadeo laktuntzara (Sakana Group-Aralar) gailendu zitzaion (1:51:44) Ibai Azanzari (Beola Motor). Sergio Lopez (Quesos Albeniz-Burunda) hirugarren sartu zen, 12 segundora. Top Tenean beste bi sakan-

dar sailkatu ziren. Martzel Etxeberria iturmendierra (Sakana Group) laugarren iritsi zen, 33 segundora, eta Mikel Unzilla etxarriarra (Quesos Albeniz) hamargarren, 4:15era.

Gainontzeko sakandarrei dagokionez, Unai Garro (Sakana Group) hamaikagarren izan zen, Iker Agudelo (Quesos Albeniz) hamalauagarren, Aitor Ondarra (Sakana Group) hemeretzigarren, Xabier Borrega (Quesos Albeniz) hogeigarren eta Manex Zufiaurre (Sakana Group) hogeitabatgarren.

Taldeka Sakana Group-Aralar izan zen onena.



©IMANOL_ERVITI

Erbitiren Iparraldeko Infernua

TXIRRINDULARITZA Igandean jokaturako Paris Roubaix inoiz baino gogorragoa izan zen Iparraldeko Infernua. Imanol Erbitik aurreko taldeko ihesaldian sartzea lortu zuen, baina Hiriberrikoak erorikoa izan zuen eta proba utzi behar izan zuen, "gutziz amorratuta", ezker eskuko bi metakarpokoak hautsi eta gero. Ebakuntzatik osatzen ari da orain.



Iker Palacios, Urbasako igoerako lehendabiziko mangan, Urbasako portuan gora.

Errekorrak apurtuz

AUTOMOBILISMOA Aspaldiko Urbasako Igoerarik jendetsuenean, Joseba Iraolak marka berria ezarri du: Zallakoak 3 minutu eta segundo batean igo zuen portua. Inoiz baino pilotu sakandar gehiagok parte hartu zuten, eta Iker Palacios izan zen lehena (3:36)

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Motor festak aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Eguraldia primerakoa zen, pandemiagatik murrizketak bertan behera geratu ziren lehen asteburua zen, jendea gogotsu zegoen... guztia batuta, jendetza bildu zen Urbasako igoerako txoko eta zirrikitu guztietan. Eta espero baino askoz ere gehiago. Olaztin autoa aparkatzea zaila zen, eta antolakuntzatik aipatu zutenenez, tarteka sarrerak ere agortu egin ziren. Gazte kuadrillak, familiak, motor zale beterranoak... Urbasako magalean guztiek izan zuten tokiak, eta aspaldiko Urbasako igoerarik jendetsuena izan zen.

Iraolaren erakustaldia

Eta halako festa giroarekin, pilotuek ere bere onena eman zuten. Joseba Iraola (NP01) eta Gerard de la Casa (Ford Fiesta) ziren

proba irabazteko faboritoak, eta Iraolak ez zuen hutsik egin. Zallako pilotuak ibilbideko 39 bihurgunetan hegan egin zuten eta Urbasako igoerako gaur egungo ibilbideko errekorra apurtu zuten (3:01.528), Iñigo Martinezek 2004 urtean Formula kategorian ezarri zuten 3:02.110 errekorra ehuneko batzuetan hobetuz. Iraolak 12 segundotan ondu zuen Urbasako bere marka (3:13.821, 2015 urtea).

Zalantzarik gabe, Iraola eguneko protagonista nagusia izan zen. 23 segundo atera zizkion bigarren sailkatu zen Daniel

IRAOLA PROTAGONISTA ZELA, INOIZ BAINO PILOTU SAKANDAR GEHIAGO ARITU ZIREN URBASAN

Jimenezi (BRC B49), eta 23 segundo Arkaitz Ordokiri (NAC M20FC). Ehunekoak asko baliatu duten kirol honetan, alde handia. Oso pozik zegoen pilotu bizkaitarra eta bere mekanikariak ere, eta ez da gutxiagorako.

Gerard de la Casa eta Ford Fiesta bere auto ikusgarriak asistentzia guneko begirada asko bereganatu zituzten. Andorrako pilotu beterrano ezagunak makina bat argazki egin zituen motor zaleekin. Urbasako pilotu mitikoenetako bat da. Urte luzez darama Urbasara etortzen, eta zale batek duela 40 urte berarekin argazki bat atera zuela gogoratu zion. De la Casa seigarren sailkatu zen sailkapen absolutuan edo *scratchean* (03:34.254), turismoen mailan lehena. Eta nabarmentzekoa izan zen Esteban Garcia Campiño pilotua (Porsche 911 Turbo, 4:19.727). Sakana Mo-

torsport eskuderiarekin lehiatu zen Urbasako Igoeran bere 50. urteurrena bete zuen pilotu beterranoak, eta pilotu asko hurbildu ziren bera agurtzera.

Inoiz baino sakandar gehiago

Urbasako Igoera inoiz baino sakandarragoa izan zen. 12 pilotu sakandarrek lortu zuten proba despeditzea. Gogotsu aritu ziren, bakoitza bere kategorian eta mailan lehia polita eskainiz. Lehendabiziko sakandarra Iker Palacios izan zen (BRC B52). Sailkapen orokorrean edo *scratchean* 6. sailkatu zen lakuntzarra (3:36.195). Bigarren sakandarra Iñigo Zelaia bakai-kuarra izan zen (Speed Car GT1000, 3:41.787) eta hirugarrena Josu Berastegi urdiaindarra (Speed Car GT1000, 3:48.510).

Iker Palacios nahiko lasai zegoen asistentzia gunean, mekanikariak lanean zebiltzan bitartean. "Bi urte lehiatu gabe egon ondoren, errepidera bueltatzearrekin, proba bukatzearekin eta autoa ez matxuratzearrekin konforme geratuko nintzateke. Gustura ari gara, eta hori da garrantzitsuena" zioen Palacios azkeneko saioari ekin aurretik. "Sekulako jendetza dago goian. Esango nuke azken aldiko igoerarik jendetsuena dela" gaineratu zuen.

Iñigo Zelaia eta Josu Berastegi, aldiz, urduriago zebiltzan. Izan ere, lasterketa batean adrenalina goraino igotzen denean burua hotz mantentzea, ez da erraza. Josu Berastegik edizio honetarako prestatu zuen autoa, eta Iñigo Zelaia duela bi urteko Urbasako Igoeratik aritu gabe zegoen, autoa doitzen eta autoari tamaina hartzen. Bestalde, Delfin Goikoetxea pilotu iturmen-diarrak prestatutako Alpine prototipoak ere arreta handia erakarri zuen. Hura ere duela bi urtetik aritu gabe zegoen, eta auto polita prestatu zuen. Asistentzia guneko mekanikari eta laguntzaileak gurpilak aldatu eta garbitzeko lanetan buru belarri zebiltzan. Izan ere, harrigarria da gurpil hauei itsasita gelditzen zaizkien harritxoak.

BI URTE LEHIATU GABE EGON ETA GERO, HAINBAT PILOTU URBASAN ITZULI ZIREN LASTERKETETARA

Sakandarrak

1. Joseba Iraola (NP01)	3:01.528
7. Iker Palacios (BRC B52)	3:36.195
10. Iñigo Zelaia (Speed Car GT1000)	3:40.735
14. Josu Berastegi (Speed Car GT1000)	3:48.510
20. Urko Berdud (Renault Clio Sport)	3:54.105
22. Arkaitz Irigoien (Renault Clio)	3:56.813
29. Eneriz Besga (Citroën Saxo VTS)	4:04.818
34. Delfin Goikoetxea (Promo Racing Proto Alpine)	4:08.714
36. Mikel Mendinueta (Peugeot 205 GT)	4:10.205
39. Iker Askargorta (Opel Astra)	4:13.952
40. Ander Gurmindu (Renault Clio Sport)	4:14.944
52. Asier Lopez de Sabando (BMW E30, FL)	4:32.313

*Erretiratuak: Iban Lopez de Goikoetxea (5 GT Turbo)



Joseba Iraola, mekanikariekin.

Asistentzia guneko mugimendua

Bitartean, pilotu eta mekanikari guztiak agurtzen zebilen Garikoitz Flores. 2019ko Urbasako Igoerako txapeldunak aurten proba ikusle gisa jarraitu zuen. Iraillaren 18an Aiako Igoeran errepidetik atera eta kolpea hartu zuen Floresek, eta autoa oso kaltetuta geratu zuen. "Txasisa eta guzti aldatu behar zaio, eta ez dut astirik izan Urbasarako autoa prest izateko" aipatu zuen. Pilotu sakandarra Espainiako Igoeren Kopan murgilduta dago, eta ikusteko dago txapelketa behar bezala bukatzerik izango ote duen.

Bestalde, Urbasa kaleko azken etxeko bajearen parean zeuden gainontzeko pilotu sakandar gehienak. Mugimendu handia zegoen: Eneriz Besga, Arkaitz Irigoien, Iker Askargorta, Ander Gurmindu eta abar luzea. "Ongi doa proba, momentuz. Gustura gabiltza" zioen Besgak. Horren kontentua ez zegoena Iban Lopez de Goikoetxea (5 GT Turbo) zen. "Hots bat nabaritu dut, uste dut autoa ez dabilela ongi" azaldu

zuen bigarren mangari ekin baino lehen. Eta, hain zuzen ere, olaztiarrak bigarren manga hori ezin izan zuen bukatu, palierrak apurto baitzitzaizkion.

Ikuskizun, abiadura, hots eta txalo zaparraden gune bilakatu zen Urbasa. Irteeran ikusle asko pilatu ziren, eta baita probako bihurgune guztietan ere. Beste behin, motorraren festa handia.

Arrakasta itzela

Sakana Motorsport taldeak igoraren balorazio oso ona egin du. "Lasterketa azkar joan zen, bizi-bizi, eta matxuraren bat kenduta, ez zen aparteko arazorik egon. Ezta istripu larririk ere. Bestalde, jende asko hurbildu zen Urbasara. Sekulako giroa egon zen. Pozik gaude jendea ongi ibili zelako; ongi kokatu ziren, zehaztutako lekuetan, eta gehienek sortutako zaborra txukun-txukun bildu zuten. Egia esan, nahiko azkar egin zen garbiketa lana" aipatu du eskuderiako Raul "Paxtu" Lopezek.

Ez da ahaztu behar Urbasa-Andia natur parkea dela, eta segurtasuna bermatzearekin batera, guztia garbi uztea izaten da Sakana Motorsporten kezka nagusia, lortutako helburua. "Arrakasta itzela izan zuen probak. Pilotuen maila ezin hobea izan zen, eta ikusleen jarrera primerakoa. Urbasa natur parkea, ibilbidea eta herria garbi geratu zen. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu MX Urbasa zirkuituko kideei, errepide mozketa egiteagatik; Olaztiko eskolari. sarreren salmenta egiteagatik; eta garbiketa egiteaz arduratu zen olaztiar taldeari ere. Baita Olaztiko Udalarari, komisarioei, babesleei eta bertaratu ziren milaka zaleei" azaldu dute antolatzaileek.



Zenbait pilotu sakandar, azkeneko igorari ekin baino lehen.



Milaka ikusle bildu ziren proba jarraitzera, eta pilotuak gogoz animatu zituzten.

Egunotan azken bilketa lanak eta kontu ixteak egiten ari dira Sakana Motorsport eskuderiakoak. 2022ko hitzordua zehaztuta dute: 2022ko urriaren 8an jokatuko da 40. Urbasako Igoera, data borobila izango duena.

"PILOTUEN MAILA EZIN HOBEA IZAN ZEN, ETA IKUSLEEN JARRERA PRIMERAKOIA" SAKANA MOTORSPORT



Urriaren 14ra arteko epea dago Onddo Lasterketan izena emateko. ARTXIBOA

XIII. Onddo Lasterketarako izena ematea zabalik

ATLETISMOA Urriaren 16an izanen da, eta oinezko martxa, Eskolarteko Krosa eta Onddo Lasterketa hartuko ditu

Pandemiagatik joan zen urtean ezin izan zen jokatu, baina Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak Onddo Lasterketa berreskuratu du eta zapatilak jantzi eta bertan parte hartzeko deia egin die sakandarrei. Urriaren 16an izanen da, larunbatarekin, eta Altsasuko inguruko paraje ederretan goiz ederra pasatzea da asmoa.

Onddo Lasterketa (7 km) Sakanako lasterketen artean proba herrikoiena da, ez baita lehiakorra. Azken edizioetan bezala, hiru proba ezberdin izanen dira. 10:30ean oinezko martxa abiatuko da. Ordu bat beranduago, 11:00etan, 41. Eskola Arteko Krosko lasterketak jokatuko dira, kategoriatan ezberdinetan, eta 12:00etan hasiko da Onddo Lasterketa.

Izena ematea www.dantzalekusakana.com webgunean egin beharko da, urriaren 14a baino lehen. Onddo Lasterketako eta

oinezko martxako partaideak batuta, gehienez 250 partaide onartuko dira. Dortsala jasotzerakoan 5 euro ordaindu beharko dira, eta partaide guztien artean 3 onddo saski zozketatuko dira.

Mendizaleak EHko erdigunera

Iazko etenaldia eta gero, atzera ere Euskal Herriko Erdigunera Mendi Martxa berreskuratu dute Iratxo, Sakanako Mendizaleak eta Nafarroa Berriz Altza taldeek, lurraldetasunaren aldarrikapena egiteko asmoz. Igandean, urriaren 10ean abiatuko da martxa, 9:30ean, Irañetako bordatik. Berriain ondoko Olibesariora helduta (1.236 m), EH Erdigunearan hasiko da lurraldetasunaren aldeko ekitaldia, 11:00etan. Bueltan pintxo potea izanen da Irañetako bordan. "Sakandarrak martxan parte hartzera animatu nahi ditugu, gure lurraldetasuna aldarrikatzeko" diote antolatzaileek.

Lau irurtzundar ditu Imanolek

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak gaur, ostirala, hasiko du liga. Talde berdeak Manzaneres FS hartuko du Anaitasunan, 20:30ean. Xotak asteartean egin zuen denboraldiko aurkezpena, Sadarren, eta 1. mailari eustea izango da helburu nagusia. Imanol Arregik 4 irurtzundar ditu bere esanetara: Asier Llamas, Aitor Irujo, Roberto Martil eta Ion Cerviño.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 8

ALTSASU Gazte Topagune Sozialista. Harrera, kontzertuak eta umore ikuskizuna.
16:00etatik 01:00etara,
Dantzalekun eta Iortia zabalgunean.

ALTSASU Gazte agenda: Serigrafia.

17:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Irurtzun: lehen...

eta geroa... Irurtzunen historia irudien bidez hitzaldia Patxi Alegrekin.
19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Pilota jaialdia. Promozioa 4 1/2:

Salaberria // Zozketa. Euskolabel 4 1/2 txapelketa: Ezkurdia // Laso. Binaka: Irribarria – Zabaleta // Peña II – Marikurrena II.
21:30ean, Burunda frontoian.

LARUNBATA 9

ALTSASU Gazte Topagune Sozialista. Hitzaldiak, olinpiadak, kontzertuak, erakusketa, ikuskizuna.
10:00etatik 01:00etara, herrian.

ALTSASU Gazte agenda: Hasiera jaia.
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU Udazken azoka. Eneritz Artetxe ipuinkontalaria, Nerepe arbizuarraren bakarlarri saioa, pintxo dastaketa eta Hiru H Lesakako musika taldearen kontzertua.
18:15etik aurrera, plazan.

IGANDEA 10

ALTSASU Untza-Delikako ur jauzia ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak.
08:00etan, egoitzatik.

IRAÑETA Euskal Herriko erdigunera martxa. Gosaria, musika ekitaldia eta pintxopotea.
09:30ean, bordan.

ARBIZU Udazken azoka eta Sakanako Trikitilariak.
10:00etatik 14:00etara, plazan.

ALTSASU Gazte Topagune Sozialista. Hitzaldiak mahai ingurua, boxeo, pilota, herri kirolak, erakusketa, kontzertuak.
10:00etatik 01:00etara, herrian.

ASTELEHENA 11

ALTSASU Gazte Topagune Sozialista. Tailerrak, bertso saioa, kontzertuak.
10:00etatik 03:00etara, herrian.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko mobilizazioa. Aurrez aurreko osasun arreta eskatzeko ibilaldia.
12:00etan, udaletxearen paretik osasun etxera.

ASTEARTEA 12

ALTSASU Gazte Topagune Sozialista. U12: Hispanitate egunaren aurkako ekitaldia. Ondoren, desmuntaia.
12:00etan, Dantzalekun.

IRURTZUN Zurginaren ipuina familiarreko antzerkia euskaraz.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Urriak 12 Ezer ez ospatzeko kontzentrazioa.



ALTSASU Irati Urrestarazuren Te Flujo erakusketa.
Urriaren 8ra arte. Asteleheneetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.

Ospa mugimenduak antolatuta.
19:00etan udaletxe parean.

ASTEAZKENA 13

SAKANA. ERA guraso eskolak. Familia eta eskola norabide berean eta sintonia berean.
Hizlaria: Yolanda Olasagarre.
17:00etan, youtube.com/c/eranafarroa-n.

ALTSASU Kafe konpondu.
Izena emateko: sakana@cederna.es.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

OSTEGUNA 14

URDIAIN Lu Shuzurren Kamishibai ipuin kontaketa

eta Egin ezazu zure trapuzko pampina tailerra.
17:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Olatzea komunitate etxebizitzaren inguruko batzarra.
18:00etan, jubilatuen elkartearen.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO


Nora gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 8: 19:00
Igandea 10: 19:30


Benedetta gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 14: 19:00

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



Bazkide Zozketa

1. SARIA

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK

LACTURALE: Esneki lotea

GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a




- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



ESKELA



Julio Rivas Merchan

(2021eko irailaren 30ean hil zen)

"Apaltasunez prestatzen zenituen bazkari bikainak, apaltasunez bizi izan zara gure artean, eta azkenik, apaltasunez ere, joan egin zara. Beti izango zara gure bihotzetan"

Lakuntza eta Zegamako zure lagunak

OROIGARRIA



Benigno Mendia Goikoetxea

VI. urteurrena
(Urriaren 10ean)

"Gure bihotzetan zaude"

Zure familia eta lagunak
Urdaian

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Lakuntzako Udalarren enkante bidezko salmenta: Uriz kaleko bi partzela salgai, lizitazio-iragarkia irailaren 30eko NAO 229- zenbakian argitaratu da. Proposamenak urriaren 28ra arte egin daitezke.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Lakuntzako gazte txokoan hiru begiraleren kontratazioarako deialdia: Lan poltsa osatuko da ezarritako baldintzak bete eta egindako hautapen probak gianditu dituzten izengaitekin. Kontratu urritik maiatzera arte izango da, begiraleek txandaka lan egingo dute, bikoteka eta txandakatu. Lanpostuak C mailako ordainsaria izango du. Euskarazko nahitazeko hizkuntza eskakizuna C1 (ahozkoa). Parte hartu ahal izateko Altsasuko Enplegu Bulegoan izena eman behar da, enplegu-eskatzaila gisa edo enplegu hobekuntzan. Eskabideak aurkezteko epea urriaren 18ko 14:00etan amaitzen da.

Etzarri Aranazko Danbolintxulo haur ludotekarako lan poltsa: Ikasurtean zehar sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko. EGA edo balioidea izatea eskatzen da eta Haur Hezkuntzako goi zikloa edo gradua izatea baloratuko da. Interesa baduzu bidali zure curriculum-a danbolintxulo-haurludoteka@gmail.com helbidera.

Sakanako Mankomunitateko kirol monitorea, entrenatzaile eta aurkezle eskaldunen lan poltsa: 18 urte beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarriko kirol titulazioa izatea derrigorrezkoak dira. Izena eman kirolak@sakana-mank.com postara idatziz edo 948 464 866 telefonora deituz

IKASTAROK

Altsasun mikologia has-tapenak tailerra (genero arruntenak): Praktikaren bitartez, zizak eta haien generoak ezberdintzeko funtsezkoak diren ezaugarriak ikasteko helburuarekin Altsasuko mikologia elkarteak antolatutako tailerra. Altsasuko Gure Etxean, urriaren 23an, larunbata, 18:00etatik

19:30era. Sarrera mugatua denez, aurreinskripzioa egitea beharrezkoa da, horretarako zure izen abizenak eta telefona mico-logiaalsasua@gmail.com helbidera bidali edo lortia Kultur gunean izena eman. **Etzarriko hiketan ikasteko aukera:** Tartebtuak hartu eta animatuko gettuk? Be!! Ti-ta batien ikasita! Larunbatetan 10:00etatik 12:00etara, 8 saio izango dira guztira. Izena emateko azken eguna urriaren 8a izango da, udaletxean.

LEHIAKETA

Bakarrizketa feministen I.lehiaketa: Nafarroako Indarkeriaren Aurkako Plataformak antolatuta Azaroak 25 inguruan, umorearen bidez hain normalizatuak ditugun tratatu txar egoera batzuk ikusarazteko, sentsibilizatzeko, ispilua jartzeko eta patriarkatuak jartzen digun benda kentzeko. Oinarriak: Euskara edo gaztelaniaz, edozein adinetako emakumeek* parte har dezake, 10-15 minutuko iraupena izan behar du eta gidoia eta bideoa helbide honetara bidali behar da: <http://nomasvioletasexistamail.com>.

Irurtzunen euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia: 2020ko irailetik 2021eko abuztura egindako euskarazko edozein ikastaro motetara bideratua. 16 urtetik gora izatea eta Irurtzunen erro-

nomasvioletasexistamail.com. Lanak aurkezteko epea urriaren 20an amaitzen da. Sariak: irabazleak 200 euro, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Guztiak azaroan publikoaren aurrean aurkeztuko dira. Animatu eta parte hartu!!

OHARRAK

Arakiletik kutur irteera El Pobal burdinola eta Muñatonos gaztelua bisitatzea: Urriaren 23an, irteera 8:30ean izango da, aurreko egunean hitzaldia egon da Errotzen. Izena emateko epea urriaren 15ean amaitzen da. Erroldatutako helduek 25 euro, haurrek 12 euro. Eroldatu gabeko helduak 30 euro eta haurrek 15 euro. Informazio gehiago arakil-kultura@gmail.com / info@arakil.net emailera idatziz edo 634 584 226 - 948 500 101 telefonotara deituz.

Irurtzunen euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia: 2020ko irailetik 2021eko abuztura egindako euskarazko edozein ikastaro motetara bideratua. 16 urtetik gora izatea eta Irurtzunen erro-

datuak egotea derrigorrezkoa da. Eskaearak Udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira 2021eko urriaren 31a arte. Epea luzaezina izanen da. Informazio gehiago Udaletxean bertan galdetuz.

Odol emateak Irurtzunen: urriaren 14an, 16:45tik 20:30ra, www.adona.es/eu.

Odol emateak Arbizun: Urriaren 25an, 17:00etatik 20:30ra. Animatu.

Etzarri Aranazko Udalarren oharra: 2021eko 1. seihiabeteko ura ordaintzeko borondatezko epea aurtengo azaroaren 4an bukatuko da. Ordainketak helbideratua dituztenei, azaroaren 4an kargatuko zaie beren kontuetan eta gainerakoek herriko banketxe batean ordaindu beharko dute. Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

Irurtzuno konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren

fotogramak ekimena: Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu, digitalizatu eta zaintzeko asmoarekin, Filmotekak herritarrei deia egiten die etxean izan dezakeen materiala dokumentatu nahi duelako. Material orok balioa duela jakinarazi nahi dute (kamerak, proiektoreak, aldizkariak, gidoiak, bobinak, VHS, Betacam, DV-Dak, filmak...) Bi aukera daude materiala uzteko; Gordailua (Epe baterako uzten da, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio gordailugileari, eta nahi duenean berreskura dezake bere materiala artxibotik) eta Dohaintza (Materiala ezin da artxibotik jaso, artxiboari ematen zaizkio eskubideak, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio dohaintza emaileari). Galdetu zure herriko liburutegian, han emango dizute informazio gehiago, beraien egingo dute bitartekari lana eta. Edo deitu Nafarroako Filmotekako Artxibora 848 424 750 (filmoteca.archivo@navarra.es) edo Liburutegi Zerbitzura 848 427 784 (flamarg@navarra.es).

Irurtzuno konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren

Irurtzuno konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Aiala Lopez de Gereñu Miguel**, irailaren 25ean Altsasun
- **Lur Bollar Kanpion**, irailaren 28an Arruazun
- **Alaia Jaley Vergara Gongora**, urriaren 2an Altsasun
- **Eneko Iraurgi Nafarrate**, urriaren 2an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

- **Ildelfonsa Palacios Escalante**, irailaren 23an Altsasun
- **Julio Rivas Merchan**, urriaren 1ean Lakuntzan
- **German Andueza Zubieta**, urriaren 4an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Txapelketa saio bikoitza

Bihar eta etzi Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bi final laurden jokatu dira Tafallan eta Zangozan

SAKANA

Larunbatean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo final laurdena, Izaban, eta Eneko Fernandezek eskuratu zuen finalaurrekoetarako lehenengo txartela. Hain zuzen, Altsasuko finalaurrekoetarako lehenengo sailkatua da Fernandez. Idoia Granizo seigarren sailkatu zen Izaban, 272 punturekin.

Nafarroako Bertsolari Txapelketak aurrera jarraitzen du, eta asteburu honetan bi final laurden saio izanen dira, larunbatean, urriak 9, 17:30ean, Tafallako kultur etxean, eta igan-

dean, urriak 10, 17:30ean, Zangozako Karmengo Auditorian. Larunbatean egungo txapelduordea den Eneko Lazkoz Martinez etxarriarrak parte hartuko du. Bertsolari onenekin aritzeak ematen duen esperientzia goraipatu du Lazkozek **BELEIXE IRRATIAN** egindako elkarrizketan (*guaixe.eus* webgunean entzungai). Igandean Oier Lakuntza Irigoien urdiaindarrak Nafarroako Bertsolari Txapelketara itzuliko da. Aurreko edizioan ez zuen parte hartu, eta "gorputzak eskatzen" ziola esan du Beleixen egindako elkarrizketan.



BAZTERRETIK

JUAN CARLOS LÓPEZ MUGARTZA

Alvaro Mundiñano, margolaria eta euskaltzalea

Iruñeko Plazara! Elkarrekin Alde Zaharrak aurrera eramane duen borroka sozialaren memoria omendu nahi izan du eta ekimen honen barruan Alvaro Mundiñano etxarriarraren 48 koadro erakusgai egon dira.

Alvarok txiki-txikitatik margotzen du. Garai haietan Joan XXIII.a aita santua hil zen, eta Alvarok haren irudia margotzen zuen lurrean, obretan bilatzen zituen klarionekin (igeltsu puskekin); beste batzuetan, Txano Gorritxu eta euriak ezabatzen zituen beste haur margo iragankorrek ere bai.

11 urterekin La Burundesa hartu eta amak Iruñera ekarri zuen fraideetara. Autobusetik jaitsita entzun zuen lehengo hitza hau izan zen: *Vasco ser; orejas de burro tener; ir a la escuela y no aprender*. Bi urtez, egunero, egun osoan, lelo bera errepikatzen zioten berari, bai eta noizbait Osasunako jokalaria izanen zen Etxeberria gazte goizuetarrari ere.

Euskaraz hitz egiteko gogoia ere kendu nahi zieten.

Fraideetan ez zen oporrik. Gabonetan gurasoak bisitan etortzen zirenerako gela nagusia margoekin betetzen zuten, eta harrera-areto hartan 16 koadro bazeuden, 8 Alvarorenak ziren, ikasturte guztietako ikasleen lanen artean aukeratuak. Baina berak ez zion horri garrantzirik ematen, margotzen gozatzen zuen eta.

Gazte garaian, horma irudi handi bat egiteko eskatu zioten Mexikoko Coatzacoalcos herrian. Handik urte batzuetara, Lapurdin eta Yamaguchin ere bere margoak erakutsi zituen.

Etxera itzuli ondoren, Etxarrin jarri ditu gehien bere koadroak, Iturrin, Iturri-Ederren. Ia hilerio aldatzen zituen, eta koadro asko izan zituen han denbora luzez. Lakuntzan erakusketa bat egin zuen, beste bat Altsasun.

Arbizun ere, Kariika Tabernan.

Baina, sakandarrak gainera, Iruñeko Alde Zaharrekotzat ere jotzen du bere burua; izan ere, han oso ezaguna da eta denek Alvaro Etxarrikoa deitzen dute. Berak, Alde Zaharraren giro euskalduna sustatzen du, fraideetan esaten ziotena gaindituz, ez baitu inoiz ere, ez hemen, ez inon, erakusketa bakar bat egin izenburua euskaraz ez duenik, bera margolaria izateaz gain, euskaltzalea ere badelako.

Gitarraren hiru akorderekin hasi zen

Nerepe abeslariaren atzean Nerea Perez Barbarin arbizuarra dago. Gitarraren laguntzarekin hainbat kontzertu eskaini ditu eta bihar, larunbata, 19:00etan, Arbizuko plazan emanaldia eskainiko du, udazken azokaren baitan

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Nerepek ahots berezia dutela diote. Betidanik etxean amaren gitarra izan du, eta gitarra jotzen ikasteko "txirrinta" piztu zitzaion. Amak hiru akorde erakutsi zizkion, "baina literalki", eta horrekin hasi zen Nerea Perez Barbarin arbizuarra abesten. "Internetetik bertsioak ikasten nituen. Pixkanaka akorde gehiago ikasi nituen. Lehenagotik idazten nuen, eta idatzi horiekin nire lehenengo abestia sortu nuen". Baina ez zion inori erakutsi. "Gero lotsa pixka bat kendu nuen, eta laguneren artean jotzen hasi nintzen". Orain arte. Larunbatean, urriaren 9an, 19:00etan, emanaldia egingen du Arbizuko plazan.

Duela hiru urte hasi zen gitarra jotzen, "2018ko urrian", eta bere lehenengo kontzertua eskaintzera joan den urteko martxoan ausartu zen. Pandemiaren aurretik. Donostiako gaztetxe batean izan zen, "lagunak zirelako. Donostiako lagun bat daukat eta berak bazekien abesten nuela. Animateko eta kontzertua eskaintzeko esan zidan". Ondoren, konfinamendua etorri zen. Baita bigarren kontzertua ere Lizarran. "Baina Donostia eta Lizarra zirelako, bestela ez nuke joko". Sakanan abestera "orain" ausartu da Nerepe. "Ordura arte ezagunek ikustea lotsa handia ematen zidan".

Ahotsarekin bat

"Nik uste ikasi nuen lehenengo abestia *Lau teilatu* edo horrelako zerbait izan zela. Abesti horren akordeak hartuz nire lehenengo abestia sortu nuen. Bigarrena ere antzeko akordeekin egin nuen". Baina abesti horiek ez zituen erakusten. "Duela hiru kontzertu edo erakutsi nituen". Abesti propioak eta berriak zirenez jendeak ez zituen ezagutzen, "eta lotsa ematen zidan". Abestiek ere "ez dituzte jai giro handia" sortzen azaldu du. "Baina orain pare bat jotzen ditut".



Nerepe abeslari arbizuarra. UTZITAKOIA

"IDAZTEAREN BIDEZ BARRUA ZABALTZEN NUEN; LETRAK HORTIK SORTU DITUT" NEREPE

Inspirazioa "emozionalki gaizki" dagoenean iristen zaiola aitortu du Nerepek. "Orduan, beti idazten ditut gauza nahiko ilunak. Nire bizipenen metaforak eta horrelakoak". Idaztea barrukoa kanporatzeko modu bat bezala hasi zen: "Beti kostatu zait jendeari nire sentimenduak adieraztea. Gusturago gelditzen nintzen eta barrua zabaltzen nuen idaztearen bidez". Gitarra jotzen hasi zenean, letra horiek abesti bihurtu zituen. "Horri esker orain lortu dut jendearekin gehiago hitz egitea eta emozionalki irekitzea". Garapen pertsonalean aldaketa nabaritu du.

Abestiak sortzen jarraitzen du, baina azken aldian gutxi idatzi duela aitortu du Nerepek: "Denbora pila bat daramat ideiarik gabe, egia esan". Benetan gogoia duenean sortzen du; "krisialdi bat" edo barrutik ateratzen zaionean idazten

du. "Ez dut esaten: hilabete honetan idatzi behar dut. Ez".

Unidad Alavesa, Berri Txarrak, Katamalo, Fondo Flamenco... "Alde batetik bestera joaten naiz". Gustuko duen musikaren bertsioak egiten ditu, eta mota askotako musika gustuko duenez, "denetarik jotzen dut. Nire aho-tsarekin ongi gelditzen dena". Nereperen emanaldietan, beraz, "betiko bertsioak" entzuteko aukera dago. Azken kontzertua, hain zuzen, Arbizun eskaini zuen. "Askok flipatu zuten ez zutelako espero". Herrian aurkezteko aukera izan zuen. Bihar eskainiko duen emanaldia "antzekoa" izango dela esan du. "Abesti berriren bat ikasi dut, eta nireak ere joko ditut".

Nerepe oso gaztea da, aurten 20 urte beteko ditu eta ikasten ari da. Baina musikaren munduan jarraitzea nahi du. "Ikaragarri gustoko. Ez daukat ezer aurreikusita, baina gustatuko litzaidake denetarik probatzea". Talde batekin hastea, "bakarrik banago askoz gehiago kostatzen zaidalako ateratzea", edo estilo berriak probatzea, "eta ez bakarrik gitarrarekin jotzea". Etorrikizuna badu.



Fran Urias Zelanda proiektu berria Ane eta Iñaki Bastida neba-arrebeekin. ANDER CANALES

"Aberasgarriena prozesu bera da"

FRAN URIAS AGIRRE MUSIKARIA

Zelanda musika proiektu berria aurkeztu du etxarriarrak. Ane eta Iñaki Bastidarekin batera sortu du taldea, eta dagoeneko 'Amarena' abestia kaleratu dute

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Urte hasieran agur esan zuen Hesian taldeak. Baina sortzaile batek ezin dio sortzeari utzi, eta Fran Uriasek abestiak egiten jarraitu zuen, zertan amaituko zuten oso ongi jakin gabe. Orain, Zelanda talde berria aurkeztu du.

Zer da Zelanda?

Musika proiektu berri bat da. Musika talde berri bat. Nolabait Hesianen errautsetatik jaiotako proiektu bat dela esan daiteke. Nik sortutakoa, Ane Bastida eta bere neba Iñaki Bastidarekin batera. Hesian amaituta zegoen, nahiz eta ofizialki despeditu ez, baina erabakia hartuta geneukanean, baneuzkan abestiak buruan. Hainbat ideietan eta konposatzen eta forma ematen hasi nintzen inongo helbururik gabe. Baina gutxinaka abestiek beraiek itxura hartu zuten. Abes-

tiak bultzatu zidaten pentsatzera agian zerbaite polita egin neza-keela horrekin. Ez izatea ni bakarrik etxean gitarra jotzen. Zerbaite indartsuago egin neza-keela; asmo handikoagoa.

Argi zeneukan hauek ez zirela Hesian-erako?

Ez neukan batere argi nora joan ahal ziren. Hesianen azkenengo diskaren ondoren abesti berriak sortzen hasi nintzen etxean, nire kabuz. Momentu horretan pentsatzen nuen Hesian-erako izango zirela. Oker ez banago. Denbora dezente pasa da eta Hesianen erabaki hori ere aspaldi hartuta genuen. Seguruenik, hasiera batean Hesian neukan buruan. Baina berehala ikusi genuen ez genuela jarraituko, eta orduan pentsatu nuen nik hori neukala eta nire ikuspegitik abesti politik zirela. Etorkizuna ikusten nien. Hesian amaitzean zerbaite egitea

pentsatu nuen. Baina, hori; zer edo zer. Ez nukean buruan talde bat sortzea. Denborarekin hartu zuen beste itxura bat.

Eta nola sortu zen proiektu berria?

Hori bai izan zela Hesian praktikoki amaituta zegoen. Konfinamendu garaian, nik gaixotasuna pasa nuen, denbora luze pasa nuen etxean. Orduantxe hasi ginen pixka bat. Aurretik entseguren bat egin genuen, entseatu ahal zenean, eta hori ere moztu zen. Abestiak entsegura eramaten nituen osatzeko zeudela. Erdizka. Ezin nuen aurrera egin ez nekielako nora zihoazen. Nire kabuz moldatu behar izan nuen eta ordenagailuko programa batzuekin lortu nuen, ezin nituen instrumentuak sartu. Horrela hasi nintzen maketa batzuk egiten. Taldekoei bidaltzen nien iritzia emateko. Nire berrogeialdia bukatu nuen,

urte amaieran, hamabost abesti nituen grabatuta. Nahi gabe lan pila bat egin nuen, material asko bildu nuen.

Zer eman dizu proiektu berriak? Horrelako zerbaite behar zenuen?

Beti edukitzen dut kristoren beharra. Normalean musikari bati galdetzen diozunean zer den musikari izatearen hobere-na, nik dakidanagatik, zuzenekoak esaten dizute. Horri pisurik kendu gabe, niretzako gauzarik aberasgarriena da abestiaren sorkuntza prozesua bera. Abestia borobiltzen den arte, grabatzen den artea. Ordura arte ematen den prozesu horren barruan ematen diren gorabehera guztiak, abestia erdipurdi uzten duzula ez zaizulako ezer gehiago bururatzen eta hurrengo egunean lelo borobil bat ateratzen zaizula... Prozesu hori oso polita da. Behar nuen. Sortzea hustutzea da, barruan daukaguna ateratzea, eta lan horretan islatzea. Hori behar nuen, eta asetu ninduen. Egia da etxean egon behar izate horrek, bakarrik eta isolatuta, prozesua aurreratu eta aberastu zuela.

Zertan bereizten da Zelanda?

Pop-rock oinarriko talde bat izaten jarraitzen dugula uste dut. Hesianekin alderatuta ez dugu haize instrumenturik sartu, ez daude bi ahots... Zerbaite modernoagoa; ezberdinagoa. Gaur egun euskal musikan entzuten den *mainstream* musika horretatik ezberdina. Saiatu gara barrura begiratzen, eta ez hainbeste jendea pentsatzen. Azkenean zirkulu batean sartzen zara. Musikari askok esango dute ez dutela jendea kontuan hartzen, eta gezurra da. Saihestezina da. Galdera horiek egiten ditugu guztiok. Orain ez gara inor. Hesianetik gataz, baina kontzientzia gara irudia Zuriñe zela. Bera izan da aurpegia. Orduan karga gutxiago nabaritzen genuen. Publiko berria izango da. Hesianetik etorriko da ere, seguruenik, baina gehiena berria izango da. Talde berri bat gara.

Rockeroagoa dela esan daiteke?

Nik baietz esango nuke. Harrantza jo dugula uste dut. Beste

"ABESTIEK BULTZATU ZIDATEN PENTSATZERA ZERBAITE POLITA EGIN NEZAKEELA"

batzuk esan didate elektronikoa dela, Zetak-en antzera. Baina biak entzunda ez dute zerikusirik. Ez dakit musika mota hori egiten. Baina erritmoak pisu handia dauka. Ekoizpenaren aldetik sinete batzuk ditu, soinu modernoagoak. Zetak-ek hartu duen pisuagatik orain sinete-ak edo elektronika pixka bat entzutean Zetak-era jotzen dugu. Egia da soinu hori lehenengo planora eramane duela, eta haiekin konparatzen bagaituzte, ez dago gaizki. Baina ez du zerikusirik, gurea rock and roll-etik dator.

Lehenengo abestiak haria markatzen du?

Ez nuke esango *Amarena*-k musikalki bereziki markatzen duenik taldearen estiloa. Abesti honekin Hesianekin apurtzea nahi genuen. Ez zentzu negatiboan, baizik eta ezagutzen gaituztenek pentsatuko zuten Franek egin du abestia, berak abestuko du... Horrekin apurtu nahi genuen. Zerbaite berria da. Ez du zerikusirik orain arte egindakoarekin. Datozenak? Agian ez doaz hain urrun. Gauza hauek definitzeko, baloratzeke edo deskribatzeko okerrak sortzaileak gara. Baina denetarik esan digute. Nik hona eramane nahi nuen, gero bakoi-tzak nola hartzen duen ez dago nire esku.

Zergatik Zelanda?

Zelanda izatez Herbereetako zonalde bat da. Zeelanda Berria imajinatzen dut kolonizatutako irla bat dela eta Zeelanda Berria jarri ziotelako. Taldeko kide batek zerrenda bat ekarri zuen aurreko talde batekin egindakoa, eta Zeelanda Berria atera zen hasieran. Baina Zelanda motzagoa zen eta Bizkaiko euskaran askotan erabiltzen da: Zelan da zure izena?

Zein da hurrengo urratsa? Diskoa grabatzea?

Pixkanaka goaz. Azkenean, diskaren kontzeptu hori apurtzen ari da. Bere logika badu. Kontsumitzeko moduak aldatu dira eta dagoeneko CD erreproduktore bat aurkitzea oso zaila da. Beraz, diskoa erosten duzu eta zer egiten duzu horrekin? Agortzen ari da. Abestiak izango dira gero eta gehiago kontsumituko direnak. Unitatea abestia izango da. Garaiak aldatzen ari dira, eta orain dena kontsumo azkarra da. Hamar segundotan konbentzitu behar duzu.

"Hiru belaunaldi ikusi ditugu tabernan"

Olaztiko Clinker taberna eta jatetxeak 40 urte bete ditu. Hain zuzen, duela lau hamarkada Mari Jose Lopez de Goikoetxea Ruiz de Azua eta Patxi Aldaz Zufiaurre bikoteak hartu zuen honen kudeaketa

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

1 Duela 40 urte Clinker hartu zenuen. Nola eta zergatik?

Patxi: Ni aurretik zerbitzari izan nintzen Aralarren. Anai batekin igandetan joaten ginen. Mekanikoa nintzen eta Mari Josek eskularru fabrika batean lan egiten zuen. Langabezian gelditu zen, eta animatu ginen.

2 Momentu horretan zer zen?

P.: Cementosen lagapen bat zen eta normalean langileen oinordekoei uzten zieten. Nire aita langilea zen eta hartzeko aukera genuen. Komitearen eta zuzendariaren artean erabakitzen zuten nori eman. Aukera hoberena ikusten zutenari ematen zioten.

Mari Jose: Cementosek herriarendako egin zuen elkartzeko toki bezala. Momentu horretan ez zegoen jubilatuek elkarterik ez ezer, eta hemen edaria merkeagoa zen beraiendako. Hori mantendu behar izan genuen. Pixkanaka hasi ginen. Ondoan eskola dago, eta egun batean hiru irakasle agertu ziren ea bazkaria emango ote genien galdezka. Hirurekin hasi ginen, eta gaur egun arte. Lana utzi genuen.



Patxi Aldaz eta Mari Jose Lopez de Goikoetxea erdian, Joseba eta Joan semeekin. UTZITAKOAK

3 Ez da erraza 40 urtez ostalari-tza negozio bat kudeatzea, ezta?

P.: Oso gorabeheratsua izan da. Hartu genuenean, 1982ko ekonomia krisia izan zen. Ikaragarria izan zen. Gazte guztiak langabezian, dirurik gabe, eta hona denbora pasatzera etortzen ziren; ezer kontsumitu gabe. Krisialdi guztiak ikusi ditugu, azkenekoa, COVID-19arena. Semeek asko lagundu digute. Helduena saretan sartu da, guk ez baitugu kontrolatzen, bestela, koronabi-

rusaren egoera honekin ez dakit zer egingo genukeen.

4 Beraz, Clinkerrek etorkizuna badu?

P.: Ez. Ez dut uste jarraituko dutenik. Bere lana badute eta ez diet gomendatzen. Oso nekagarria da. Ez duzu jai egun bat bakar bat ere.

MJ.: Nik uste dut baietz. Nik nahiko nuke semeak gelditzea, beraiek nahi edo behar badute. Hemen jaio dira, nire gurasoek

eta anaiak hemen lan egin zuten. Hemen dena dugu. Bizitza oso bat. Semeek hartzen badute ni laguntzera etorri naiteke.

5 Clinker erreferente bat bada.

MJ.: Diskoteka ere izan zen. 4:00etan hasten ginen eta 10:00etan itxi. Herrietako tabernak ixten zituztenean, jendea hona etortzen zen. 2003an inguru itxi genuen. Arautegia aldatu zutenean.

6 Lau hamarkadetan, hamaika anekdota izanen dituzue.

MJ.: Anekdota pila bat. Gehien inpaktatu ninduen diskoteka izan zen. Hainbeste jende gazte eta ni DJ bezala egoten nintzen... Niretako hori izan zen hoberena. Beste egun handi bat 2005ko Nafarroa Oineza izan zen. Harrigarria izan zen. Jende pila bat etorri zen.

7 Nola aldatu da urte hauetan?

P.: Hiru belaunaldi ikusi ditugu. Familia osoak. Baina nik uste ez dela hainbeste aldatu ongi pasatzeko modua. Gaur egun kotxe gehiago daude eta mugitzea errazagoa da. Baina nahiko antzeko da. Orain, pandemiaren ondoren, ikusiko dugu.

8 Pintxoak, hamaiketakoak, bazkariak... zein da eskaintza?

P.: Denetarik ematen dugu. Eguneko menua, asteburuko menua eta pixka bat bereziago asteburuko menu berezia. Goian jantokia dugu, behean beste bat eta tabernan eta terrazan ere bazkaltzeko aukera dago.

9 Zenbat jende sar daiteke?

MJ.: Goiko jantokian 80 bat pertsona eta behean 60 bat. Tabernan ere jendeak jaten du, eta

orain terrazan ere. Terrazak gorakada izugarria izan du. Gazteek ez dute barrura sartu nahi orain. Terrazan egon nahi dute. Egun handienak Santa Agedak izaten dira. Leku guztiak betzen dira, nahiz eta gehiago jarri. **P.:** Egun horretan jendeak Clinker aukeratzea... oso berezia da guretzako.

10 Nekagarria da, baina alde onak ere egonen dira.

P.: Jendearekiko harremana. Lagunak egin ditugu. Eguneroko bezeroak dira asko, eta azkenean harremana oso estua da. Familia negozioa da ere.

MJ.: Guraso askok esan digute haien seme-alaben mailetak utziko dituztela Clinkerren atean hemen etxean baino denbora gehiago pasatzen dutelako! Nire aita 70 urte baino gehiagorekin ere hemen egoten zen laguntzen. Gazteak kartetan jolasten egoten ziren, eta beraiekin esertzen zen. Bihotzekoak eman zionean bi gazte ospitalera bisitatzeraz joan ziren. Ama sukaldean egoten zen, eta nik beragatik ikasi nuen. Patxiren ama ere egoten zen.

11 40. urteurrena behar bezala ospatu zenuen.

MJ.: Festa gutxi gorabehera espero genuen. Bagenekien elektrotzaranga etorriko zela, Chuchin eta Djak. Baina ez genituen espero seme helduenaren esker hitzak. Sorpresa handia izan zen. Eskerrak hemendik pasa den jende guztiari, langileei, bereziki Olaztiko herriari... Urteurren eguneko bazkarian fri-toak. txorizo errea eta txupito bat eman genuen. Bereziarena semearen hitzak izan ziren. Margolan bat oparitu ziguten, loreak...

WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK

LIBURU ALDIZKARI **MAKETAZIOA** KARTEL PAPER **GINTZA** **APLIKAZIOAK**

IRUDI KORPORATIBOAK PUBLIZITATEA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275 - info@gkomunikazioa.eus - Foru plaza, 23-1. Altsasu

gik
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA